

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
Lehen Hezkuntzako Gradua
Ikasturtea: 2022-2023

**HEZIKETA FISIKOA ETA ESKOLA KIROLA: BA
AL DAGO LOTURA PEDAGOGIKORIK?**

EGILEA: Segurola Lopez de Munain, Iñaki

ZUZENDARIA: Echeazarra Escudero, Ibon

IKASTURTEA: 2022/2023

Data, 2023ko ekainaren 23an

AURKIBIDEA

LABURPENA	4
RESUMEN	4
SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	6
1. MARKO TEORIKOA	8
1.1. Praktika fisiko-motorra, garapen integrala eta ongizatea adin txikietan	8
1.2. Konpetentzia motor osoa eta orekatua, kirol heziketaren xedea	9
1.2.1. <i>Konpetentzia motorraren kontzeptualizazioa</i>	9
1.2.2. <i>Domeinu motorrak eta konpetentzia espezifikoak</i>	11
1.3. Eskola Kirola, konpetentzia motorra garatzeko esparru extra-kurrikularra	12
1.3.1. <i>Filosofia didaktikoa</i>	12
1.3.2. <i>Eskola kirolean erabil daitezkeen kirol-irakaskuntza modeloak</i>	14
1.4. Calasanz ikastetxeko hastapeneko Eskola Kirolaren modeloa	16
1.4.1. <i>Jarduera anitzeko saioak (LH 1. eta 2. maila)</i>	18
1.4.2. <i>Multikiroleko saioak (LH 3. eta 4. maila)</i>	19
1.5. Jardueren ezaugarrien analisisa eskuhartzea ebaluatzeko estrategia bezala	20
2. HELBURUAK	22
3. METODOA	23
3.1. Parte hartzaileak	23
3.2. Kodifikazio erreminta	23
3.3. Prozedimendua	25
4. EMAITZAK	26
4.1. Praktika denboraren kudeaketa	26
4.2. Praktika motorraren ezaugarriak	29
5. EZTABAIDA	32
6. ONDORIOAK	35
7. MUGAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK	36
8. BIBLIOGRAFIA	37

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Parlebasek proposatutako jarduera fisiko familia desberdinen sailkapena (simplex 2^3).....	21
--	----

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Ariketak sailkatzeko erabilitako kategorizazio irizpideen banaketa eta azalpena.....	24
2. taula. Praktika motor eta ez motorraren banaketa.....	26
3. taula. Praktika motorra eta ez motorra mailaka.....	26
4. taula. Dentsitate indizea praktika motorraren barruan.....	27
5. taula. Praktika motorraren saio barneko banaketa.....	28
6. taula. Akzio motor domeinuen banaketa praktika motorretan.....	29
7. taula. Materialaren erabileraren banaketa praktika motorretan.....	30
8. taula. Praktika motorra memoriaren arabera sailkatua.....	31

LABURPENA

Kompetentzia motorra izugarrikoa garrantzia duen gaitasun bat da garapen integrala lortzeko bidean. Hau lortzeko, Heziketa Fisikoa eta Eskola Kirola arlo garrantzitsuenetakoak izan daitezke. Lan honen helburua Heziketa Fisikoaren eta Eskola Kirolaren artean lotura pedagogikorik dagoen edo ez aztertzea da, horretarako Gasteizko Calasanz ikastetxeko hastapeneko Eskola Kiroleko modeloa aztertu egin da. Programako jardueren analisisa egiteko, aurretik balidatutako kategorizazio taula bat erabili da. Bertan, lehen hezkuntzako (LH)-ko lehenengo lau maila desberdinetako 131 ikaslek egindako 84 ariketa desberdin aztertu dira. Emaitzei dagokienez, ikusi da Calasanzeko hastapeneko Eskola Kiroleko modeloa Heziketa Fisikoaren planteamendu metodologikoa jarraitzen duela, eta horrekin batera, akzio motor domeinuen bidez Eskola Kiroleko programazioa egitea erabilgarria izan daitekeela. Bide batez, etorkizunari begira hobetu beharreko aspektuak ere identifikatu ahal izan dira lan honetan, hala nola, zeharkakotasunaren erabilgarritasuna, hau da, irakasgaien artean loturak ezartzeko aukera, eta LH-ko 1. mailan eman diren ideia kontrajarri batzuk, hala nola, aurkakotasun jardueretan denbora asko ematea baina aldi berean jarduera horietako gehienak memoriarik ez izatea.

Hitz gakoak: kompetentzia motorra, kirol-heziketa, akzio motorraren domeinuak, ebaluazioa.

RESUMEN

La competencia motriz toma especial importancia a la hora de garantizar el desarrollo integral de los niños. Para desarrollar ésta, se ha visto que la Educación Física y el Deporte Escolar pueden ser dos ámbitos muy útiles e interesantes. El objetivo de este trabajo es analizar si hay algún tipo de relación pedagógica entre la Educación Física y el Deporte Escolar. Para ello se ha analizado el programa de iniciación de Deporte Escolar del colegio Calasanz de Vitoria-Gasteiz.

Para el análisis de las actividades realizadas, se ha utilizado una plantilla previamente validada. En ella se han analizado las 84 actividades realizadas por los 131 alumnos de los cuatro primeros cursos de educación primaria obligatoria (EPO). Respecto a los resultados, hemos podido ver cómo el planteamiento de iniciación deportiva del colegio Calasanz va acorde con el planteamiento pedagógico de la asignatura de Educación Física; así, se ha podido ver que la programación e intervención propuestas para la etapa de iniciación en Deporte Escolar se adecúa a las líneas curriculares del área de Educación Física. Al mismo tiempo, el diagnóstico ha permitido identificar como áreas de mejora la transversalidad de la asignatura de educación física, es decir, la capacidad de ésta para trabajar distintos contenidos relacionando varias asignaturas y algunas

incongruencias a la hora de llevar a cabo el programa en el 1º curso de EPO, como ha podido ser la gran cantidad de tiempo que se le dedica a hacer actividades con oposición, y que al mismo tiempo estas actividades no tienen memoria, para detectar los distintos puntos de mejora del programa de este colegio y mejorar en este aspecto.

Palabras clave: competencia motriz, educación deportiva, dominios de acción motriz, evaluación.

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gradu amaierako lan honetan, motrizitatearen garapenaren ikuspuntutik arlo kurrikularra eta ez kurrikularra uztartzea bilatu da. Bi arrazoi nagusi izan dira lana gai honen inguruan egitera bultzatu nautenak: alde batetik Eskola Kirola bera, duela urte batzuetatik ona bertan lanean nabilelako, eta bestetik, etorkizunean izan nahi dudan lanbidea uztartzen dituelako, Heziketa Fisikoa alegia.

Lan honi esker ikusi ahalko dugu benetan Heziketa Fisikoaren eta Eskola Kirolaren artean nolabaiteko lotura pedagogikorik dagoen edo ez. Hezitzaile batzuk ildo horretatik jotzen dute eta beste batzuk aldiz, haien lan egiteko eta Eskola Kirola eta Heziketa Fisikoa planteatzeko eraren ondorioz, ez diote lotura handirik ikusten. Gure kasuan, analisia egindako eskolan lotura hori betidanik egotea bilatu izan da eta ildo horretatik jarraitu nahi dugu, hori dela eta ikusi nahi izan dugu benetan erlazioren bat mantentzen den arlo kurrikularren eta arlo ez kurrikularren artean mugimenduari dagokionez.

Gradu Amaierako Lana egiteko ordua heldu zenean, hasieratik nahiko argi izan nuen nondik joango zen. Gaiak aukeratu baino lehen, guztiak irakurri eta kirolarekin eta gorputz hezkuntzarekin zerikusia zuten gaiekin geratu nintzen.

Gai hauen artean, batzuk beste batzuk baino erakargarriagoak iruditzen zitzaizkidan. Nire interesa gehien bat etorkizunari begira Heziketa Fisikoaren arloan dago, izan ere, Heziketa Fisikoko irakaslea izatea gustatuko litzaidake. Lehen Hezkuntzako gradua hasi baino lehen Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzien (JFKZ) gradua egin nuen. Azken honen azkenengo urtean minor desberdinak genituen aukeran, nire kasuan, nahiko argi neukanez JFKZ-en gradua egin ostean Lehen Hezkuntzako Gradua egingo nuela, errendimenduko minorra aukeratu nuen. Errendimenduko minorra egiteari esker, futboleko eliteko talde baten lan egiteko era ikusteko aukera izan nuen. Mundu hori gustatu zitzaidan, baina arlo kurrikularra ezagutu nahi nuen, horregatik, hurrengo urtean Lehen Hezkuntzako Gradua egiten hasi nintzen.

Lehen Hezkuntzako Gradu ikasketekin batera, gaur egun, Gasteizko eskola bateko eskolaz kanpoko kirol koordinatzaile bezala lanean nabil, beraz, Eskola Kirola ere oso gai interesgarria iruditzen zait. Izan ere, azkenengo 8 urtetan formatzaile bezala aritu naiz areto futbolean eta futbolean, beti hastapenean, hau da Eskola Kiroleko etapan. Hasiera batean multikiroleko saioekin hasi nintzen eta urte batzuk geroago areto futboleko kimu eta hurrekin eta futboleko kimuekin aritu naiz.

Nire egoera pertsonala aprobetxatuz, eta lan egiten dudan eskolako jarduera anitzeko saioen eta multikiroleko saioetan egiten duguna baloratzeko, bertan aurrera eramaten ditugun saioak aztertzea erabaki dut. Analisi hau proposatzen ditugun jardueren barne logikaren araberako analisi bat izango da.

Lan honen zergatiari dagokienez, lehenik eta behin, asko interesatzen zaidan gai bat delako honen inguruan egitea erabaki dut, bestalde, niretzat interesgarria izateaz aparte, Eskola Kirola praktikatzen duten pertsonentzat ere erabilgarria izan daitekeela uste dut. Azken finean, haiek dira gure eskuhartzeen hartzaileak, zenbat eta eskuhartze eta saio egokiago, dinamikoago, erakargarriago, anitzago eta dibertigarriagoak proposatu, aukera gehiago izango ditugu umeak kirolarekiko eta jarduera fisikoarekiko atxikimendua lortzeko, bizitza estilo osasuntsuagoa bereganatzeko eta haien konpetentzia motorra hobea izateko.

Aldi berean, lan honen erabilera eskolarako ere dela ikus dezakegu. Eskolarentzat diagnostiko bezala erabil daiteke ikusteko zer egiten dugun Eskola Kiroleko saio desberdinetan. Azken finean, egiten dena ez bada baloratzen, ezinezkoa izango da jakitea ongi egiten ari garen edo ez, hori dela eta, gure eskuhartzeak nolakoak diren ebaluatzea ezinbestekoa da, hori delako hobekuntzarako gakoetako bat.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. Praktika fisiko-motorra, garapen integrala eta ongizatea adin txikietan

Garai batetik hona, umeen aisialdiko praktika denbora asko aldatu da. Garai batean ohikoena umeak kalean jolasten, saltoka, futbolean edo saskibaloian aritzen, zuhaitzetatik zintzilik... ikustea zen. Gaur egun aldiz, praktika horiek gero eta gutxiago ematen dira. Kirola egitea gustuko dutenek kirola praktikatzen dute, baina beste askok, kirola egitea gustuko ez dutenek gehien bat, haien aisialdiko denbora beste zeregin batzuk egiteko erabiltzen dute, normalean eskakizun motor askoz baxuagoko zereginekin betetzen dute aisialdiko praktikarako denbora hori.

Horren harira, teknologia berrien ondorioz, gero eta ohikoagoa da umeak dispositibo hauekin jolasten aritzea kalean jolasean egon beharrean. Orokorrean, gaur egungo bizi estiloarekin gertatzen den bezala, aisialdi denbora ere askoz sedentarioagoa bihurtu da. Horri elikadura txarra gehitzen badiogu, faktore hauek eragin ditzaketan gaixotasunen kopurua etengabe handituz doa. Ikerketa desberdinek diotenaren arabera, umeen heren bat baino gehiagok ez dute jarduera fisiko edo kirolik egiten, eta bakarrik beste heren batek OMS-ek (Organización Mundial de la Salud) egokitzen hartzen dituen jarduera fisiko mailak lortzen ditu (Brandon, 2020). Ehuneko hau nesken kasuan oraindik ere altuagoa da. Datu horiek oso larriak dira, eta etorkizunari begira aldatu beharrekoak arazo larriagoak izan nahi ez baditugu (Reverter Masià et al., 2015).

Nahiz eta gehienetan jarduera fisikoaren eta kirolaren onurak aztertzen dituzten ikerketak arlo fisikora bideratuta egon, eragin positiboak sortzen dituen bizitzako beste arlo batzuetan ere garrantzia dute. Kirola eta jarduera fisikoari esker umeek sozializatzeko aukera dute, prozesu mentalak hobetu daitezke, eskola errendimendua hobetu eta orokorra umeen bizi kalitatea ere hobetu daiteke jarduera fisiko eta kirolari esker (Ramirez et al., 2007).

Honen harira, Haur Hezkuntzako azkenengo urteetan eta Lehen Hezkuntzako hasierako urteetan oso praktika erabilia Acouturierrek proposatutako psikomotrizitate praktika da. Metodo honen helburua, egitearen plazerretik pentsatzearen plazertera pasatzea da. Pertsonak, izaki arrazionalak garenez eta burmuin sozial bat dugunez, besteekin kontaktuan egoteari esker aberasten gara. Beraz, oso garrantzitsua da ikasleak bata bestearekin, inguruko objektuekin, materialekin... ahalik eta denbora gehien erlazioan egotea. Irakasle bezala, komunikatzen duen ikasle bat entzuten duen ikasle bat izaten saiatu behar gara, izan ere, komunikazioa heltze prozesuaren puntu klabeetako bat da. Komunikatzen garenean, ni izatetik gu izatera pasatzen gara, ez dugulako bakarrik gure pertsona kontuan hartu behar, bestea ere kontuan hartu behar da komunikazio prozesuan (UNIR, 2022).

Honekin batera, Acouturierak proposatzen dituen jarduerak, jarduera nahiko askeak dira, jolas librea eta norberaren sormena estimulatzea bilatzen da. Metodologia honen barruan ikasleen garapen sentsu-motorra bilatzen da, horretarako oso material erabilgarriak koltxonetak, plintoak, espalderak, bankuak...

Modu honetan, erlazio inter pertsonaleko ikasketa gune bat sor dezakegu, elkarrekiko laguntzan oinarritutakoa, partekatutako ardurekin eta orokorrean ikasleen arteko interdependentzian oinarritua dagoena (UNIR, 2022).

Kirolak sor ditzakeen onurak kontuan hartuta, eta kontuan izanda umezaroan kirola praktikatzeko biderik errazenak (ez bakarrak) Heziketa Fisikoa eta Eskola Kirola direla, hauek bultzatzea eta ikasleak parte hartzera animatzera ezinbestekoa dela dirudi (Etxeazarra, per review). Horretarako, eskola garaiko kirol praktikaren helburu nagusia ikasleen garapen integrala bermatzea izan beharko litzateke. Hau bideragarria izateko, ezinbestekoa da jarduera fisiko erregularra, inklusiboa, bidezkoa eta formatzailea eskaintzea. Garai bateko jarduera fisiko modelo tradizional eta lehiakorra alde batera utzi beharra dago eta erabaki gaitasun eta autonomia handiagoko jarduera fisiko eskaintza eskaini behar zaie parte hartzaileei (Larraz, 2004).

1.2. Konpetentzia motor osoa eta orekatua, kirol heziketaren xedea

1.2.1. Konpetentzia motorraren kontzeptualizazioa

Aurretik aipatutako garapen integrala lortzeko bidean, ezinbestekoa da konpetentzia motorra, hau da, dimentsio motorra. Honek izugarriko garrantzia hartzen du umeen bizitzako lehenengo urteetan (Piaget, 1985). Hori dela eta, oso garrantzitsua da umezaroetik konpetentzia motorraren garapena estimulatuko duten praktika arloak proposatzea (Devís, 2018). Praktika arlo horiek, egoera motorrek jarduerarekiko eginkizun berdinak dituzten parte hartzaileak biltzen dituzten arloak bezala ulertu behar dira (Martínez de Santos, 2007).

Lan honen ardatza konpetentzia motorraren analisisa izango da. Urteetan, Heziketa Fisikoko saioak programatzerako orduan mugimendua kontuan hartu da, ikasleak mugitu behar ziren, baina konpetentzia motorraren kontzeptuaren agerpenarekin, pentsaera aldaketa bat eman da arlo honetan. Gaur egun, martxoaren 1eko 157/2022 Lehen Hezkuntza dekretuak ere konpetentzia motorra programazioaren ardatza bezala kokatzen du (Ministerio de Educación y Formación Profesional, 2022a).

Larrazen esanetan, mugimendua eta konpetentzia motorra bi kontzeptu ezberdin dira. Mugimendua gorputzaren aldaketa biomekanikoari egiten dio erreferentzia, eta konpetentzia motorrak aldiz mugimenduari eta norberak mugimendu hori egiterakoan duen inplikazioari. Hau da, lehenengoak produktuan (emaitzan) jartzen du aditasuna eta bigarrenak aldiz produktu hori sortzen duen pertsonan. Hori izan beharko litzateke Heziketa Fisiko irakasgaiaren helburu nagusia, aditasuna mugimendua egiten duen

pertsonan jartzea, bere eboluzioa aztertzea eta hori baloratzea garapen integrala lortzeko bidean (Larraz, 2008b).

Arloan adituak diren autoreek diotena oinarri bezala hartuta, zentzuzkoa dirudi hastapeneko Eskola Kiroleko programazioak konpetentzia motorrean ere oinarritzea. Eskola Kirola arlo kurrikularrean lantzen denaren jarraipen bat izatea egokia dirudi garapen integrala lortzeko giltza izanez.

Heziketa Fisiko eta Eskola Kirol saioetan, ikasleak mugitzen dira, alegia, giharreriaren uzkurdura boluntarioa gertatzen da eta honi esker mugimendua sortu egiten dute. Lehen aipatu dugun bezala, ezin gara mugimendu hutsarekin gelditu, mugimendu hori egiterakoan pertsona bakoitzak daukan intentzioa ere azertu beharko genuke, hau da, zergatik egiten duen egiten duena (Larraz, 2013). Txikitatik mugitzen egoteari esker eta mugimendu mota desberdinak egiteari esker, norberaren gorputza menperatzera eta kontrolpean izatera eraman ditzake ikasleak. Horrekin lotuta, ikasleak mugitzen diren inguruan gorputza komunikazio era bat bezala erabiltzen dutela esan daiteke (Ternera et al., 2011).

Konpetentzia motorraren garapenari dagokionez, 3-5 urte bitartean ikasleek hobekuntza nabariak pairatzen dituzte haien hezur eta giharrerian, beraz, etapa honetan Heziketa Fisikoak paper garrantzitsu bat joka dezake (Imbernón, 2020). Hazkuntza prozesu horretan garapen psikomotorra ematen da, hau da, haien koordinazio motorra (esku begiko koordinazioa) hobetzen doa urteen poderioz. Gero eta nagusiagoak izan, ikasleak izango dituzten erronka motorrak konplexuagoak izango dira haien koordinazioa ahalbidetuko dielako (Rodríguez-Vázquez et al., 2020).

6-12 urte bitartean mugimenduarekin lotutako aldaketa nabariak ematen dira, malgutasuna, zehaztasuna, oreka, indarra, erresistentzia, abiadura eta zalutasuna besteak beste. Aldaketa hauei esker, ekintza motor zehatzak egitea ahalbidetuko die ikasleei (Altozano, 2015).

Oso garrantzitsua da etapa desberdinetan ikasleei proposatzen dizkiegun jarduera eta erronkak haien mailara egokituak egotea, hau da, ikasleentzat erronkagarriak izatea baina aldi berean lorgarriak ere. Ikasleei proposatzen dizkiegun erronken aurrean haien erantzun gaitasuna positiboa, sortzailea, efektiboa... denean, umeak ondo pasako dute ikasten duten bitartean. Egoera horretan, umea ikasketari irekitzen da, hau da, gehiago egiteko gogoia pizten zaio. Aldiz, kontrakoa gertatzen bada, bere jarrera ikasketarekiko ezkorra izango da, ikaskuntza irakaskuntza prozesua oztopatuz (Imbernón, 2020).

Ikusita konpetentzia motorrak ze garrantzia daukan, gaur egun kasu askotan oraindik ez da behar bezala lantzen edota Heziketa Fisikoko saioak honetan oinarritzen. Arlo hau lantzeko bidea eskola izan daitekeela argi dago, bertako irakasle eta espezialistekin, baina ezin diegu ardura osoa formatzaileei egotzi, beraz, familiak gehiago inplikatu

beharko lirateke konpetentzia motorra maila egokiak bereganatzeko prozesuan (Fonseca eta Benacázar, 2016).

Inplikazio maila altuago hori lortzeko bidean, Gambauren arabera (2015), eskola eta eskola instituzio desberdinak ikasleak jarduera fisikora hurbiltzeko metodarik erabilgarriena dela dio, izan ere, haien gaitasunak, jarrera, balioak eta ezagutza handitzen du (Gambau, 2015).

Arlo kurrikularretik kanpo egiten dena aztertuz eta gaur egungo bizi estilo eta bizitza sedentarioa kontuan hartuta, ohikoa da garapen motorrean desorekak dituzten ikasleak topatzea. Arazo hauek gehien bat garapen psikomotorrean desorekak dituztelako ager daitezke, beraz, oso garrantzitsua da desoreka horiek ahalik eta azkarren detektatzea norberaren gaitasun motorren garapena estimulatzu konpontzen saiatzeko (Monsalvo et al., 2018).

Ikusita Heziketa Fisikoak eta Eskola Kirolak motrizitatean dituzten eragin positiboak, egokia izango litzateke irakasleen artean eta arlo ez kurrikularrean lanean dauden pertsonen artean lan taldeak sortzea, lan ildoak antzekoak izan dadin eta denon artean ikasleei ahalik eta estimulu positibo gehien emateko (Sánchez Jiménez et al., 2018).

Ikasleek konpetentzia motorrean arazoren bat pairatuz gero, ikusi da arazo hauek umeen arlo kognitiboan eragin kaltegarriak izan ditzaketela, ikaskuntza irakaskuntza prozesuan arazoak izan ditzaketelako, besteekin erlazionatzeko arazoak izan ditzaketelako, postura txarrak...(Rodríguez-Vázquez et al., 2020). Orokorrean, hezkuntza prozesuak helburu nagusietako bat bezala daukan garapen integrala lortzea oztopatu dezake konpetentzia motorrean desorekak izatea. Horregatik, autore desberdinek diote Eskola Kirolean konpetentzia motorrean oinarritutako saioak programatzea egokia izan daitekeela umeen garapen integrala lortzeko bidean.

1.2.2. Domeinu motorrak eta konpetentzia espezifikokoak

Konpetentzia motorraren kontzeptualizazioa bi kontzeptu oso garrantzitsu aipatu dira, alegia, ikasleek mugimendu mota desberdinak egin behar dituztela eta komunikazio motor desberdinak eman behar direla mugimendu horietan.

Programazioa akzio motor domeinuen arabera egiteari esker, domeinu bakoitza konpetentzia motor zehatz bat lantzea ahalbidetuko du, jarduera bakoitza bere barne logika propioa izango du eta hori dela eta arrakasta lortzeko estrategia motor zehatzak aurrera eramane beharko dira egoera bakoitzean. Beraz, ikus daiteke nola akzio motor domeinu bakoitza konpetentzia motor espezifikoa lantzeko baliagarria izan daitekeen (Larraz, 2008a).

Larrazen (2008a) arabera, Heziketa Fisikoko urteko programazioa akzio motor domeinuen arabera antola daiteke, hau eginez gero, sei talde handi sortu egiten dira.

Sei talde hauetan Lehen Hezkuntzako ikasleak aurki daitezkeen egoera motor guztiak barne hartzen dira:

- 1. akzio motor domeinua: Bakarkako egoera motorrak, ingurunearen eta pertsonen interakziorik gabe, hala nola, atletismoa, igeriketa, gimnasia etab.
- 2. akzio motor domeinua: Pertsona bat beste pertsona baten aurkako egoera motorrak, ingurunearen ziurgabetasunik gabe, hala nola, borroka kirolak, erraketa kirolak etab.
- 3. akzio motor domeinua: Kooperaziozko egoera motorrak barne hartzen ditu, ingurunearen ziurgabetasunik gabe, hala nola, erronka kooperatiboak, soka saltoa taldean, akrosport etab.
- 4. akzio motor domeinua: Kolaborazio eta oposiziozko egoera motorrak, ingurune ziur batean aurrera eramaten direnak. Parte hartzaileek haien kideekin kolaboratu behar dute eta aurkako taldeari aurre egin, hala nola, saskibaloia eta areto futbola.
- 5. akzio motor domeinua: ingurunearen ziurgabetasuna ematen den egoera motorretan. Jarduera hauek ingurune naturalean egiten diren jarduerak bezala ezagutzen ditugu, eskalada, mendiko bizikleta eta eskia esate baterako.
- 6. akzio motor domeinua: Helburu artistiko espresiboa duten egoera motorrak. Helburua edertasuna bilatzea denean, dantzak, antzerkia etab.

Akzio motor domeinu bakoitza egoera motor desberdinen aurrean kokatuko ditu ikasleak, hauei aurre eginez gero ikasleek arlo desberdinetako kompetentzia motorra bereganatuko dute eta horrek garapen integrala lortzera hurbilduko ditu (López Pastor, 2017).

Akzio motor domeinuen arabera programatzeak Heziketa Fisikoan eta Eskola Kirolean edukiak antolatzeke aukera ematen du, programazioaren egituraketa logikoa ahalbidetzen du eta edukiak ere era logiko batean antolatzeke erraztasunak ematen ditu besteak beste (Larraz, 2008b).

1.3. Eskola Kirola, kompetentzia motorra garatzeko esparru extra-kurrikularra

1.3.1. Filosofia didaktikoa

Kompetentzia motorra aztertzen ibili garenean ikusi dugun moduan, bai Heziketa Fisikoa eta baita Eskola Kirola baliabide aproposenetakoak izan daitezke umeen garapen integrala bermatzeko. Gaur egungo kurrikulumak dioen moduan, beste helburu batzuen artean kompetentzia motorraren garapena ere bermatu beharra dago, hau da, norberaren gorputz eskemari aditasuna jarri behar zaio. Hau lortzeko, barne logika desberdinetako praktika motorrak planteatzea proposatzen du kurrikulumak, helburu desberdinekin eta ziurgabetasun maila desberdinak kontuan izanda. Proposatzen

dizkiegun erronka hauei esker, ikaslearen garapen integrala bermatzen saiatu behar gara, haien gaitasun kognitibo, motor eta afektibo motibazionalak garatuz (Ministerio de Educación y Formación Profesional, 2022a).

Gure kasuan aditasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Kiroleko dekretuak dioenean jarriko dugu, hori izango delako gure ikerketa eremua. Eskola Kirolari dagokionez, nahitaezko eskolatze aldian zehar ikasleek eskola orduetatik kanpo egiten dituzten kirol jarduerak barne hartzen ditu. Eskola Kirolaren helburu nagusia kiroltan diharduen haurren hezkuntza garapena osatzea eta, horrekin batera, kirolari bakoitzaren beharizan indibidualak betetzea izango da. Nesken eta mutilen hazkuntza integrala berdintasun egoeretan bermatu behar da, haien nortasunaren garapen orekatuan lagunduz. Horrekin batera, hasieran aipatutako ongizatearen bultzatzaile nagusienetako bat da modalitate desberdinetako kirol praktika eskainiz (Álava, 2022).

Arabian Eskola Kirola 125/2008 Dekretuaren bidez arautua dago. *Eskolako kirolaren helburu nagusia haur kirol-egilearen hezkuntza-garapena osatzea izango da, bai eta kirolari bakoitzaren banakako beharizanak asebetetzea ere. Hala, eskolako kirolak haurren heziketa integrala bilatuko du, beren sarbidea eta parte hartzea bermatuz berdintasunez eta sexu-estereotipo eta roletatik kanpo* (Eusko Jaurlaritzak, 2008, 2.or).

Ikus daitekeen moduan, Eskola Kirolak kompetentzia motorra garapen prozesuaren ardatza bezala kokatzen du, umeen garapen motorra, kognitiboa, afektibo soziala eta prozedurazkoa bermatzen saiatuz, nahiz eta Eskola Kiroleko dekretuan zehatz mehatz horrela ez agertu. Hau lortzeko, besteak beste, barne logika desberdinetako egoerak erabil ditzakegu.

Eskola Kiroleko dekretuak Eskola Kirolak kutsu formatzailea daukala ere badio, hezkuntza sistemako ildo jarraituz eta gehien bat Gorputz Hezkuntzako helburuekin bat eginez. Horregatik ere kompetentzia motorra Eskola Kiroleko ardatz nagusietako bat bezala uler dezakegu.

Heziketa Fisikoa Eskola Kirolarekin batera, umeentzako lehenengo kontaktua izan daiteke jarduera fisiko eta kirolarekin. Lehenengo hurbilketa hau Heziketa Fisikoaren eredu eta metodologietan oinarritua egon beharko litzateke. Honekin bilatzen diren helburu nagusienak printzipio etiko, moral eta sozialak lortzea dira, eta horrekin batera ohitura eta kultura fisikoa barneratzen joatea (Uribe, 1997).

Kirol hastapena jolasaren bidez faktore anitzeko garapena bilatzen duen prozesu pedagogikoa da, baina leku guztietan ez da era berdinean planteatzen.

Arabako Eskola Kiroleko Dekretuak dioena oinarri hartuta eta bertan azaltzen diren helburu desberdinak oinarri bezala izanda, ikus daiteke bide desberdinak egon daitezkeela Eskola Kiroleko planifikazioa egiterako orduan eta saioak aurrera eramaterako momentuan. Baita ere, kontuan hartu beharra dago Eskola Kirolaren

barruan kirol modalitate asko daudela, eta guztietan era berdinean lan egitea seguruenik ez dela egokiena.

1.3.2. Eskola kirolean erabil daitezkeen kirol-irakaskuntza modeloak

Hastapenean erabil daitezkeen modelo batzuk honako hauek izan daitezke. Horien ezaugarri nagusiak jarraian jasotzen dira:

-Modelo teknikoa: Bere izenak adierazten duen moduan, teknikaren irakaskuntzan oinarritzen da. Jokalariak makina bezala hartzen ditu eta helburua da kirol jakin baten teknika lantzea, nahiz eta askotan taktikari uko egin eta erabaki gaitasuna erabat mugatu. Kirol indibidualak irakasteko askotan erabiltzen jarraitzen da (Jiménez, 2010). Konpetentzia motorra kontuan edukiz, kirol-irakaskuntza modelo honen bidez landu daitezkeen akzio motor domeinuak areriorik eta kiderik gabe ingurune ziur batean ematen direnak dira.

-Kirol Irakaskuntza modelo: Honetan kirol jakin bat inguratzen duten elementu guztiak antolatzen dira eta lehiaketa bat aurrera eramaten da. Denboraldia planifikatzen dute, taldeak (egonkorak prozesu osoan) sortzen dituzte, lehiaketak, errendimendua baloratzeko behaketa taulak, jaiak, amaierako gertakizunak eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluaketa. Modelo hau garrantzi handia dauka arlo kurrikularrean (Jiménez, 2010).

Modelo honen bidez argi ikus daiteke kideak eta arerioak parte hartzen duten akzio motorreko kirolak praktikatzeko baliagarria dela.

-Metodo horizontal ulerkorra jokoan zentratuta: Metodologia honek kirol desberdinen amankomuneko irakaskuntzan sinisten du. Kasu honetan oso ohikoa da moldatutako jokoetaz eta entrenatzaileek egindako galderataz baliatzea irakaskuntza prozesua aurrera eramateko. Metodologia hau ere 3 fasetan banatzen da: 1) Moldatutako joko erraztuak; 2) Joko egoerak eta minikirola; 3) Kirol estandarren barneratzea (Uribe, 1997).

Lehenengo fasearen barruan, landuko den kirolaren ezaugarrien arabera, 4 talde banatzen dira:

- Itu eta diana jokoak: Helburua itua dinatik ahalik eta hurbilen mantentzea da. Golf, petanka...
- Bate eta zelai jokoak: Helburua mugikor bat ahalik eta urrunen bidaltzea da honen itzulera ahalik eta gehien atzeratzeko. Beisbol, kriket...
- Kantxa banatutako jokoak: Helburua mugikor bat zelai batetik bestera pasatzea da, aurkariari itzulera ahalik eta gehien zailduz. Bi motakoak dira, horma jokoak eta sare jokoak. Esku pilota, tenis, boleibol, datchball-a, baloi errea...

- Inbasio jokoak: Aurkariaren atera inguratzea mugikorra aurkako atean sartzeko.
Futbola, saskibaloia, eskubaloia...

-Kirol aniztasunaren modeloa: Modelo hau hatsapenean kirol modalitate bat baino gehiago lantzerantz bideratuta dago. Gaur egun ikerketa ugari daude espezializazio goiztiarraren arazoa mahai gainean jartzen dutenak. Metodologia honekin kontrakoa bilatzen da. Barne logika desberdinetako kirolak lantzeari esker, akzio motor domeinu desberdinak lantzeko aukera izango dugu eta horrekin batera konpetentzia motor desberdinak bereganatu ahalko ditugu. Hau guztia, lesioen prebentzioan laguntzeaz aparte, garapen integrala lortzeko bidera eraman gaitzake (Baker eta Copley, 2009; Sanz, 2015).

-Metodo ekologikoa eta sistema dinamikoaren teoria: Sistema dinamikoaren teoriak ikerketa fokoa parte hartzaileen ingurunearekin erlazionatzean hartzen duen jokabidean jartzen du. Honekin batera, jokabide hau baldintzatzen duen parametroetan ere aditasuna jartzen du. Hori dela eta, ikasleen jokabidea une bakoitzean parte hartzen duten baldintza guztien erlazioan oinarrituko da. Egoera bakoitzean ematen diren baldintzei hertsadurak deritze (Torrents et al., 2011).

Bestalde, metodo ekologikoak pertsona eta bere jokatzeko era, inguratzen duen hori kontuan hartu gabe aztertu ezin dela dio.

Garapena ulertzeko bi era hauek pedagogia ez linealean batzen dira. Pedagogia hau ikaslearen ulerkuntzan, ingurunean (ikasgela ingurunea, gure kasuan gimnasioa) eta irakaslea. Hiru faktore hauen artean sistema dinamiko, konplexu eta ez lineala sortzen da. Ez dago jokabidea kontrolatuko duen elementu bakarra, hori dela eta, ezagutza lortzeko prozesua norberaren antolaketaren arabera izango da (Torrents et al., 2011).

Ikasketa lortzeko faktore guztiak aske uztea ez litzateke zentzuzkoa izango, hori dela eta, ezagutza lortzeko egoera aproposak sortzea proposatzen da ikasleen eta ingurunearen arteko elkarrekintza positiboak eman daitezkeen (Torrents et al., 2011).

Irakasleak jardueren arauak, materialak, antolaketa... eralda dezake. Eraldaketa horiek sortzerakoan ikasleak era desberdinean jokatuko du, eta ikasleak ere haien artean era desberdinean jokatuko dute, hori dela eta akzio motor desberdinak sortuko dira ikasleengan efektu desberdinak sortuz. Metodologia hau modelo teknikoaren kontrakoa proposatzen du, ikasleak izan behar dira aurkikuntza bidez erronak desberdinak aurrera ateratu behar dituztenak, beti ere irakaslea gidari eta laguntzaile bezala izanez (Torrents et al., 2011).

Metodologia honen barruan irakasleak koka gaitzake. Izan ere, irakasleak metodologia ekologikoa eta sistema dinamikoaren teoriaren ardatza izan daitezke. Irakasleak elkartzeko gune bat bezala, parte hartzaileen eta materialaren artean ematen diren

erlazio dinamikoetan oinarritzen dira. Irakas giroak espazioaren eta materialen antolaketa ordenatu bezala uler daitezke, zeinetan parte hartzaileen eta materialen artean ematen diren erlazioak sortutako erronkak gainditu behar dituzten. Normalean irakasleak bigarren mailako paper bat bereganatzen du, ikaslea ikaskuntza prozesuaren protagonista izanik. Metodologia honi esker, ikasleak etengabeko mugimenduan daude, mugimendu patroi berriak barneratuz eta ezagunak hobeto finkatuz. Modelo teknikoan ez bezala, metodo honekin sormena eta norberaren lan goraipatzen dira (Martínez-Heredia et al., 2020).

Nahiz eta modelo bakoitza akzio motor domeinu bat era zehatzago batean lantzera bideratuta egon, irakasle bakoitzak egiten duen programazioaren arabera modelo zehatz batean akzio motor domeinu desberdinak landu daitezke. Hori dela eta, modelo desberdinekin konpetentzia motorra eskuratzeko aukera anitzak daude.

1.4. Calasanz ikastetxeko hastapeneko Eskola Kirolaren modeloa

Umezaroan mugimenduak duen garrantzia ikusi ostean, Arabako Eskola Kiroleko dekretua aztertu ostean, hezkuntza kurrikulum berriak dioena kontuan hartu eta bere babesa izanda eta Eskola Kirolean erabilgarriak izan daitezkeen modelo pedagogikoak aztertu ostean, ikusten da ezinbestekoa dela programa egokiak diseinatzea umeen garapen motorra (konpetentzia motorra) bermatzeko, hori baita garapen integrala lortzeko bide garrantzitsuenetako bat.

Calasanzen aurrera eramaten dugun Eskola Kirol modeloa hiru adar edo fase nagusitan banatuta dago. Fase hauek ikasleen adin kronologikoarekin bat egiten dute (beti ere ikasle bakoitzaren adin biologikoa eta indibidualtasun printzipioak bermatzen saiatuz), fase bakoitza Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzari erreferentzia eginez. Nahiz eta hiru fase ezberdinak izan, hiruretan gure helburua espezializazio goiztiarra saihestea eta garapen integrala bilatzea da. Hau gehien bat horrela ikusten dugu gure helburua ez delako errendimendua, kirolarekiko eta jarduerarekiko atxikimendua baizik, hori izan daitekeelako bizitza osasuntsu bat lortzeko gakoa.

Argi dago kirol modalitate batean aditu bihurtzeko ezinbestekoa dela modalitate horren praktika intentsiboa, baina gure kasuan ez da helburua (Usabiaga et al., 2021).

Ikerketa desberdinen arabera, frogatu da ez dagoela erlazio adierazgarriki kirol batean era goiztiar batean espezializatzearen eta osasunaren artean, baina bai ordea kontrakoa, espezializazio goiztiarraren eta lesioen eta osasun arazoaren artean. Sortzen diren osasun arazo hauek ez dira soilik fisikoak, arazo psikologiko larriak ere ager daitezke. Arazo fisikoen artean errepikapenetik eratorritako lesioak izan daitezke, eta psikologikoetan aditasuna jarriz, gaintrenamendua eta estres kronikoa nabarmendu ditzakegu (Usabiaga et al., 2021).

Helduaroko kirol ohiturei dagokienez, badirudi espezializazio goiztiarra jasan zuten pertsonen kirol eta jarduera fisiko gutxiago egiteko joera dutela. Honen arrazoiak aurretik aipatutakoaren antzekoak izan daitezke, motibazio falta, gozamen falta, minak... (Usabiaga et al., 2021).

Azkenik, garapen integralaren ikuspuntutik, guri gehien interesatzen zaiguna, kirol espezializazio goiztiarrak arazo emozional eta sozialak pairatzeko aukerak handitzen ditu, kirolarekiko eta jarduera fisikoarekiko gozamen sententzia murriztu dezake, asperdura eta sormen mailak jaitsi ditzake eta kirol modalitate bakar batean aritutako pertsonen barne motibazio gutxiago izan dezakete. Faktore horiek guztiak bizitza osasuntsuarekiko (ongizatearekiko) eta kirolarekiko atxikimendua murrizten dute, hori dela eta helduak direnean (eta kasu askotan gazteak direnean ere) kirola ez egitea eragin dezakete, eta horrekin batera bizitza sedentarioago eta kaltegarriagoa. Hori dela eta, errendimendua helburu ez den kasuetan (gure kasuan) kirol espezializazioa ahalik eta gehien atzeratu beharko litzateke (Usabiaga et al., 2021).

Oidui et al.-en (2021) esanetan, Kirol bakarrean 13 urte baino lehen espezializatzea ez da gomendagarria, ahalik eta gehien ekiditea beharrezko jo da errendimendurako ibilbidea ez duelako bermatzen, lesio larriak izateko aukera asko handitzen duelako, etorkizunean jarduera fisikoa eta kirola uzteko joera handiagoa dutelako eta garapen integrala ez duelako bermatzen.

Aldiz, adin goiztiarretan kirol modalitate desberdinak praktikatzea kirolari "orekatuagoak" sortzeko aukera ematen du, indar, abiadura eta abilezia motor aberatsagoak eskura daitezke kirol modalitate bakarra praktikatzen dutenekin alderatuz, gaztetan kirol modalitate bat baino gehiago praktikatzea ez da errendimendua altua lortzearekin kontrajarria, lor daiteke (Usabiaga et al., 2021). Are gehiago, kirol aniztasunak etorkizunari begira elite estatusa lortzeko beharrezkoak diren oinarrizko abilezia kognitibo eta motorren transferentzia erraz dezake. Zehazki, hazkuntzaren lehenengo aldietan egokitzapen fisiologiko orokorrak pizten ditu, besteak beste, askotariko abilezia motorrak, antagonikoak diren gihar-multzoen entrenamendua eta malgutasunari dagozkion patroiak areagotuz. Haatik, kirol aniztasunak gaitasun fisiko espezifikoa eta kirolari orekatuagoa garatzea erraztu dezake (Baker eta Copley, 2009).

Kirol espezializazio goiztiarra ekiditeko modu bat FMS-ak (Fundamental Movement Skills) dira. Adituen arabera, FMS-etan oinarritutako saioak espezializazio goiztiarrak eragin ditzakeen kalteak apaltzen ditu eta gaitasun motor gehiago eskaintzen dizkie ikasleei (Faigenbaum et al., 2011).

FMS hauek, hiru taldetan banatzen dira, lokomozio trebetasunak (salto egin, korrika, ibili, hanka batean ibili...), egonkortze trebetasunak (oreka) eta manipulazio trebetasunak (jaurti, harrapatu, jo...) (Iivonen eta Sääkslahti, 2014).

1.4.1. Jarduera anitzeko saioak (LH 1. eta 2. maila)

Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleekin (LH 1. eta 2. mailak) jarduera anitzeko saioak egiten ditugu. Saio hauek (gehienak, ez guztiak) txokoetan antolatzen dira. Egunero material bat aukeratzen dugu eta material horrek eskaini ahal dizkigun erabilerekin akzio motor domeinu desberdinetako txokoak antolatzen ditugu. Ikasturtean zehar erabiltzen ditugun materialak, baloiak, pilota ezberdinak, sokak, bankuak, pikak, pilates baloiak, oreka instrumentuak, koltxonetak, malabarenak egiteko tresnak dira besteak beste.

Saio hauek bost-zortzi urte bitarteko umeei bideratuak daude. Adin hau ikasleentzat trantsizio fase bat izan daiteke. Umea gorputza elementu oso bat ikustetik gorputz atal desberdinak identifikatzera eta hauek era isolatu batean identifikatzeko eta aztertze gaitasuna bereganatzen doa. Etapa honen ezaugarri nagusienak honako hauek izan daitezke (Altozano, 2015):

- Norberaren gorputz irudia sortzen du ni-munduaren eta objektu-munduaren arteko interakzioari esker.
- Arnasketaren eta posturaren kontrola lortzen dute.
- Gorputz segmentu desberdinen mugimendu independentzia bereganatzen doaz.
- Lateralitatearen nozioa barneratzen doaz era progresibo batean.
- Espazioa antolatu eta egituratzen ikasten dute. Hau egiteko norberaren gorputza ardatz bezala kontsideratzen dute eta hortik abiatuz objektuekin eta gainerako ikasleekin erlazioak sortzen doaz.
- Denbora antolatu eta egituratzen ikasten dute norberaren esperientzietatik abiatuta.
- Irakurketa eta idazketa ikasten lagunduko dien gaitasun ezberdinak bereganatzen dituzte, hala nola, beso esku independentzia, koordinazioa eta begi-esku zehaztasuna.

Ezaugarri hauek kontuan izanda, LH-ko lehenengo zikloan jarduera anitzeko saioetan gure helburuak honako hauek dira:

- Material desberdinak ezagutzen joatea eta hauek sentiaraztea.
- FMS-ak (Fundamental Movement Skills) lantzea.
- Ikasleak era progresibo batean gizaki sozialak bihurtzen joatea.
- Espezializazio goiztiarra ekiditea.
- Jarduera fisiko eta kirolarekiko plazerra sentitzea, gozamina.
- Eskolako Kurrikulum proiektuarekin batera ikasleen garapen integralean laguntzea.
- Kirol eskaintza bidezko, inklusibo eta formatzailea eskaintzea.

- Konpetentzia motorra akzio motor domeinu desberdinetako txokoei esker bereganatzen joatea.

Adin honetako ikasleen ezaugarriak kontuan edukiz eta gure helburuetan oinarrituz, adin honetan erabiltzen dugun Eskola Kirol modeloa, metodo ekologiko eta sistema dinamikoen teorian oinarrituta dago. Metodologia honen bidez, ikasleei esploratzeko, haien kabuz arazoak konpontzeko eta orokorrean aurkikuntzarako bidea eskaintzen ahalegintzen gara. Monitoreok prozesu horretan bidelagun papera hartzen dugu, jarduera desberdinak proposatuz, baina saiatzen gara arazoetarako konponbiderik ez ematen. Material desberdinei esker eta hauekin eta gainerako ikaskideekin dituzten erlazioetan oinarritu behar dira arazoak edota erronkak gainditzeko.

1.4.2. Multikiroleko saioak (LH 3. eta 4. maila)

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleekin (LH 3. eta 4. mailak) multikiroleko saioak egiten ditugu. Txikiekin proposatzen ditugun saioak ez bezala, hauek normalean ez daude txokoetan antolatuturik. Ikasle hauek nagusiagoak dira eta era progresibo batean kirol desberdinak probatzen goaz haiekin. Kirol hauek barne logikaren arabera multzokatzen saiatzen gara, barne logika antzekoa dutenak momentu berdinetan landuz, hala ere, akzio motor domeinu desberdinetako kirolak hilabetero lantzen dira zeharkako programazioa jarraituz. Horri esker, bata eta bestearen artean transferentzia erraztu daiteke. Barne logika eta antolaketa era desberdinetako kirolak lantzen ditugu, futbola, areto futbola, saskibaloia, eskubaloia, beisbola, eskalada, artzikirola, colpball-a, kinball-a, esku pilota, frontenisa, tenisa, herri kirolak, goalball-a besteak beste.

LH-ko bigarren zikloan ikasleek dituzten ezaugarriak, LH-ko lehenengo zikloko ikasleen ezaugarri desberdinak dira (Altozano, 2015):

- Gorputz segmentu desberdinen garapen proportzionala.
- Bederatzi urte inguru nerbio sistemaren garapena lortzen da, beraz, momentu honetatik aurrera mugimendu harmoniatsuagoak eta zehatzagoak sortzen ditu umeak. Motrizitate fin eta lodian hobekuntza nabariak pairatzen dituzte.
- Posizioen erlatibitatearen jabe bihurtzen hasten dira.
- Mentalki, gerta daitezkeen aldaketei aurrera daitezke.
- Jaurtiketa desberdinak zehaztasun handiagoarekin egiteko gaitasuna lortzen doaz.

Ezaugarri hauek desberdinak diren heinean eta saioetan lan egiteko era desberdina denez, gure helburuak desberdinak izango dira LH-ko 1. ziklokoekin alderatuz:

- Espezializazio goiztiarra saihesten jarraitzea.
- Ikasleei kirol modalitate desberdinak aurkeztea eta hauek praktikatzeko aukera izatea.

- Kirol modalitate desberdinen artean transferentzia egotea ahalbidetzea.
- Konpetentzia motor desberdinak bereganatzeko aukera ematea akzio motor domeinu desberdinetako ariketei esker.
- Jarduera fisiko eta kirolarekiko plazerra, gozamina eta atxikimendua lortzea.
- Kirol eskaintza bidezko, inklusibo eta formatzailea eskaintzea.

LH-ko etapa honetan lan egiteko era eta saioen antolaketa desberdina denez, hauetan erabiltzen den Eskola Kirol modelo ere desberdina da. Adin hauetan erabiltzen ditugun metodoak, metodo horizontal ulerkorra jokoan zentratuta multikirolarekin nahastua dira. Kirol desberdinen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan moldatutako jokoetaz eta monitoreek egindako galderetaz baliatzen gara.

1.5. Jardueren ezaugarrien analisisa eskuhartzea ebaluatzeko estrategia bezala


Praxiologia motorrak kirol desberdinen ezaugarriak ikuspuntu estruktural batetik aztertzen ditu. Gizakiok, ezaugarri desberdin horiek dituzten jolas eta kirolatan aritzeari esker, aberastasun motor handiagoa lortuko dugu eta era desberdin gehiagotako ekintza motorrak egiteko gai izango gara, gure konpetentzia motorra hobetuz (Uribe, 1997).

Kirol hastapena praxiologiaren ikuspuntutik aztertuz, garapen soziomotorra, fisikomotorra eta pertzeptibo-motorra bilatzen duen prozesu pedagogikoa da. Erlazio horiek ematea arauak ahalbidetzen dute. Arauek jolasaren barne logika eta eman daitezkeen erlazioak determinatzen dituzte. Espazioak ere eman daitezkeen erlazioak baldintzatzen ditu. Akzio motor domeinu desberdinak aztertzerakoan ikusi dugun bezala, batzuk estandarizatuak daude (frontoia) eta beste batzuk aldiz ziurgabetasunez beteak (mendia). Denborak ere eman daitezkeen erlazioak baldintzatzen ditu. Jolas batzuetan helburua da denbora jakin batean zeregin jakin bat egitea eta beste batzuetan aldiz "X" baldintza betetzerakoan amaitzen da denbora (Uribe, 1997).

Praxiologia motorrak egoera motor bakoitzean ager daitekeen ziurgabetasun maila kontutan hartuz jarduera motor desberdinen sailkapena egiten du. Ziurgabetasun hori 3 ardatzen inguruan antolatzen da, ingurunearekiko ziurgabetasuna (I), kideekiko ziurgabetasuna (C) eta arerioekiko ziurgabetasuna (O). Sailkapen honetan oinarrituz, Parlebasek bi jarduera motor nagusi ezberdintzen ditu, bakarrik egiten diren jarduera motorrak (psikomotorrak) eta parte hartzailea beste pertsona batzuekin aritzen den jarduera motorrak (soziomotorrak) (Parlebas, 2008).

Hau jakinda, 1. irudian ikus daitekeen moduan baldintza hauek betez zortzi jarduera motor desberdin sor daitezke, hau da, simplex 2^3 . Egitura honen erpinetan hiru ardatz (ingurunearekiko ziurgabetasuna, kideak eta arerioak) horien konbinaketaren ondorioz sor daitezkeen jarduera motorrak kokatzen dira.

1. irudia. Parlebasek proposatutako jarduera fisiko familia desberdinen sailkapena (simplex 2^3).



Hauetaz aparte, badaude beste bi talde nagusi hauetatik eratorriak izan daitezkeenak, artistikoak eta ingurumenaren ziurgabetasuna dutenak alegia.

Etxeazarraren (per review) esanetan eta kurrikulum berriaren babesari esker, Heziketa Fisikoko edukien programazioa akzio motor domeinu desberdinetan oinarritzea ezagutzak barneratzeko erraztasuna eragin dezake umeengan. Planteamendu honek jokabide motorren inplikazioa hobetzen du, mugimendu era desberdinak egiteko gaitasuna handituz. Arabako Eskola Kiroleko Dekretuari helduz, ikus daiteke Eskola Kirola ume guztien garapen integrala bilatzera bideratua dagoela, eta ez soilik lehiaketara (Eusko Jaurlaritzak, 2008). Beraz, egokia izan liteke Eskola Kirolean akzio motor domeinu desberdineko ekintzak izatea ikasleen garapen motorra, egoera fisikoa eta motrizitate maila egokiak bermatzeko (Larraz, 2004).

Hala ere, Eskola Kirola bere izenak adierazten duen moduan, kirola ere barne hartzen du. Hori dela eta, kirolaren definizioa hartzen badugu, ikus dezakegu lehia definizio horren barruan dagoela, beraz, Eskola Kirolean ere lehia egon behar dela ondorioztatu daiteke, beti ere muga batzuen barruan eta aurretik aipatutako garapen integrala garrantzitsuena dela ahaztu gabe (Eusko Jaurlaritzak, 2008).

2. HELBURUAK

Marko teorikoan ikusi dugun moduan, garapen motorra adin txikietatik bereganatzen joatea ezinbestekoa da umeen garapen orekatua lortzeko. Garapen motorra kompetentzia motor maila egokiak bereganatzean datza, hori lortzeko, ezinbestekoa da kompetentzia motor espezifiko desberdinak sustatzea Heziketa Fisikoan eta baita Eskola Kiroleko saioetan ere. Aldi berean, kompetentzia motor desberdinak sustatzeko akzio motor domeinu desberdinetako jarduerak landu behar dira, hori baita lortzeko bidea.

Eskola Kiroleko dekretuak dioen moduan, Eskola Kiroleko programaren barruan dauden saioak kompetentzia motorra oinarri bezala hartuz antolatzea proposamen egoki bat izan liteke, ikusita hori dela garapen integrala lortzeko bide apropos bat, Eskola Kiroleko saioetan akzio motor domeinu desberdinetako jarduerak proposatu beharko genituzke. Beraz, Eskola Kirolean esku hartze hau era hezigarrian eginez gero oso egokia izan daitekeen esparru bat da.

Hau guztia Calasanz-eko hatsapeneko Eskola Kiroleko programaren bitartez bermatzen ahalegintzen gara eta gure helburua hau benetan horrela den edo ez frogatzea izango da.

Lan honen helburua Calasanz eskolako LH 1. maila eta 4. maila bitarteko Eskola Kiroleko saioetako jardueren akzio motor domeinuen arabera analisi bat egitea izango da. Alde batetik lau mailetan egiten dena aztertuko da eta ondoren, jarduera anitzeko saioetan (LH 1. eta 2. maila) eta multikiroleko (LH 3. eta 4. maila) saioetan egiten dena aztertuko da. Horretarako, saio bakoitzean aurrera eramango diren jardueren egiturazko aldagaiak aztertu eta bakoitzean proposatzen den interbentzio motorra karakterizatuko da behaketa taula bat erabiliz.

Lau mailetan aldi berean egindako analisisa kontuan hartuko da ikusteko zer nolako kirol eskaintza egiten zaien eskola honetako LH-ko 1. eta 2. zikloko ikasleei, eta beste alde batetik, era isolatu batena jarduera anitzeko saioak eta multikiroleko saioak aztertzen direnean bakoitzean proposatzen diren jarduerak barne logikaren arabera nolakoak diren aztertuko da.

3. METODOA

3.1. Parte hartzaileak

Behaketa lan hau egiteko Escolapios Calasanz Vitoria-Gasteizko eskolako LH-ko 1. eta 2. zikloko Eskola Kiroleko saioetan parte hartzen duten ikasleak kontuan hartu dira. Eskola honetako kirol hastapenera bideratutako programa hau ikasleen garapen integralera eta espezializazio goiztiarra ekiditera bideratutako programa da. Kirol hastapeneko programa honetan LH-ko 1. eta 2. zikloko 131 ikaslek parte hartu dute (39 lehenengo mailan, 40 bigarren mailan, 23 hirugarren mailan eta 29 laugarren mailan). LH-ko lehenengo bi zikloetan ikasle kopuruarekin alderatuz, ikasleen %44 inguru eskolaz kanpoko kirol hastapeneko programa honetan parte hartzen duela suposatzen du, eta LH-ko lehenengo bi zikloak era isolatuan aztertuz, LH 1. zikloan ikasleen %53 eta LH 2. zikloan ikasleen %35.

3.2. Kodifikazio erreminta

Behaketa hau egiteko, tresna bat sortu egin da, kategoria sistema dena, non azertu nahi diren aldagai desberdinak taldeka banatu diren. Jarduera mota bakoitza sailkatzeko irizpideak eksklusiboak eta haien artean baztertzailak izan dira, hau da, ariketa bat ezin da bi azpiataletan kokatu. Alde batetik denboraren kudeaketari erreferentzia eginez sailkapen nagusi bat egin da. Honetan baloratzen den lehenengo gauza praktika motorra dagoen edo ez izango da, eta praktika mota bakoitza ze iraupena izan duen. Behin hau eginda, praktika motorren kasuan honen dentsitatea nolakoa den azertu da, hau da, jarduera bakoitzean zenbat ikaslek aldi berean parte hartzen duten. Honetarako ondorengo irizpidea erabili da; ariketa horretan zeuden ikasleen erdia eta bat gehiago aldi berean parte hartu ahal bazuten, ariketa horren dentsitate indizea 1 izan da, aldis, ikasleen erdia edo gutxiago parte hartu ahal bazuen 0,5 bezala kontsideratu da ariketa horren dentsitate indizea. Azkenik, denboraren kudeaketarekin amaitzeko, ariketa bakoitza saioaren ze ataletan kokatzen den sailkatu da, sarrera, atal nagusia (garapena), amaiera.

Beste alde batetik, praktika motor bakoitzaren barne logikaren araberako sailkapena egin da. Kasu honetan, akzio motor domeinu mota (psikomotorra, kolaborazioa, oposizioa edo kolaborazio oposizioa), materiala bai edo ez (eta materiala egotekotan material hori estandarra edo alternatiboa den, material alternatiboa norberak beste irakasgai batean sortutako materiala kontsideratuz) eta memoria daukan edo ez azertu egin da (Etxeazarra, per review).

1. taula. Ariketak sailkatzeko erabilitako kategorizazio irizpideen banaketa eta azalpena.

	Irizpideak	Kategoriak	Deskribapena
Kokapena	Maila	1., 2., 3. edo 4. maila	Saioa ze mailatara bideratuta dagoen
	Data	Saio eguna	Saio bakoitza ze egunetan egin den
	Saio zenbakia	Saioaren zenbakia	Talde bakoitzarentzat erregistroa hasi zenetik ze saio izan den
	Ariketaren izena	Ariketaren izena	Ariketa bakoitza nola izendatu den
Iraupena	Praktika mota	Motorra	Ariketa motorra (mugimendua bai)
		Ez motorra	Ariketa ez motorra (mugimendurik ez)
	Dentsitate indizea	Totala	Ikasleen >%50 parte hartzen aldi berean
		Partziala	Ikasleen <%50 parte hartzen aldi berean
	Saio barruko kokapena	Hasiera	Hasierako fasea, azalpenak...
		Garapena	Erdiko fasea, lan egiteko fasea
Amaiera		Amaierako fasea, oharrak, lasaitasunera itzuli	
Praktika Motorraren ezaugarriak	Akzio motor domeinuan	Psikomotorra (P)	Interakziorik gabeko bakarkako jarduerak
		Kooperazioa (C)	Lankidetzaz egoeretan emandako interakzio bi pertsona edo gehiagoren artean
		Oposizioa (O)	1:1-eko egoerak aztertzen ditu. Denak baten kontra (X:1) eta bat denon aurkako (1:X) egoerak ere barne hartzen ditu
		Kooperazio-Oposizioa (CO)	Duelo kolektiboak dira (X:X)
	Materiala	Material estandarra	Ariketarako erabilitako materiala ohiko materiala da, eros daitekeena
		Material alternatiboa	Ariketarako erabilitako materiala ez da oso ohikoa, norberak egindakoa izan daiteke
		Materialik gabe	Ez da materialik erabiltzen
	Memoria	Memoria bai	Ariketa amaitzean irabazle bat edo batzuk eta galtzaile bat edo batzuk daude
		Memoria ez	Ariketa amaitzean ez daude irabazle ezta galtzailerik ere

3.3. Prozedimendua

Helburuetan aipatu dugun moduan, gure helburuetako bat lan honekin Gasteizko Escolapios Calasanz eskolan egiten den hastapeneko kirol eskaintza konpetentzia motorraren ikuspuntutik nolakoa den aztertzea izan da, horregatik, erabaki dugu praxiologia motorraren ikuspuntutik egin genezakeela analisia.

Analisia aurrera eraman ahal izateko, ariketa bakoitza kategorizatzen 1. taulan agertzen diren irizpideak kontuan hartu dira. Kategorizazio tresna hau baliagarria dela frogatzeko, Etxeazarrak (per review) egindako artikuluan oinarritu egin gara. Behin frogatuta kategorizazio tresna baliagarria dela, bost astetan zehar kirol hastapeneko lau taldeek egindako saioen erregistroa egin genuen, ondoren ariketa bakoitzaren barne logikaren analisia egiteko.

Guztira, 20 saio kategorizatu genituen lau kurtsoen artean (1200 minutu), jarduera anitzeko 10 saio eta multikiroleko beste 10. Ariketei erreparatuz, jarduera anitzeko 48 ariketa desberdin eta multikiroleko 36, guztira 84 ariketa aztertuz.

Saio guztien analisia egin ostean, maila bakoitza akzio motor domeinu bakoitzari eskaintzen zaion denbora, erabilitako materiala, proposatutako jardueren memoria duten edo ez, saio barruan denbora horren banaketa nolakoa den eta jardueren dentsitate indizea ere aztertu dugu. Hau eginda, Eskola Kiroleko dekretuak dioenarekin eta hezkuntza kurrikulum berriak dioenarekin bat datorren edo ez baloratuko dugu eta etapa bakoitzerako ditugun helburuekin bat datorren edo ez ikusi ahal izan dugu.

Guzti hau egin ostean, emaitzak eskola arduradunei eta arlo ez kurrikularrena lanean dauden formatzaileei aurkeztuko zaizkie egoeraren berri emateko eta egokitzapenak egingo dira hauek beharrezkoak diren arlo zehatzetan.

Nabarmendu beharra dago Calasanzeko hastapeneko Eskola Kiroleko programa zeharkako planteamendu bat daukala, bai jarduera anitzeko saioetan eta baita multikiroleko saioetan ere. Hau da, hilabetez hilabete planteamendua nahiko egonkor mantentzen da, ez dago saltorik hilabete batean planteatzen denaren eta hurrengo hilabetean planteatzen denaren artean, hori dela eta, aztertutako hilabetean lortutako emaitzak programa osoaren adierazgarri izan daitekeela uste dugu.

4. EMAITZAK

4.1. Praktika denboraren kudeaketa

Datuak jaso eta gero, analizatu dugun lehenengo gauza saio guztietatik zenbat denbora eskaini diogun praktika motorrari eta zenbat praktika ez motorrari izan da. Honekin batera, praktika motorraren barruan nolakoa izan den dentsitate indizea aztertu egin dugu, hau ere baldintza erabakigarria delako jakiteko nolakoa izan den ariketa bakoitzaren inplikazio motorra. Eta beste alde batetik aztertu dugu nolakoa izan den denboraren banaketa saio barruan, hau da, zenbat denbora eskaini diogun hasierako faseari, garapen faseari eta amaierako faseari.

2. taula. Praktika motor eta ez motorraren banaketa.

Praktika Mota	Ariketa Iraupena (min)	Ariketa Iraupena (%)
Ez motorra	368±2,3	%30,67
Motorra	832±5,7	%69,33
Guztira	1200	100,00%

2. taulan ikus daiteke nolakoa izan den denboraren banaketa hilabete honetako 20 saio hauetan zehar. Alde batetik emaitzak balore absolututan ager daitezke eta beste alde batetik ehunekotan, konparaketa edo analisisa egiteko adierazgarriagoa izan daitekeelako. Guztira aztertutako lagina 1200 minututakoa izan da eta horietatik 832 minutu praktika motorrari eskaini dizkiogu, hau da, ikasleek inplikazio motorra izan dute minutu hauetan zehar.

Lortutako balore hauek balio erlatiboetara pasaz, hau da, ehunekoetara, ikusten da denbora totalaren ia %70 praktika motorra egiten ibili direla, nahiko datu ona kontsideratzen dena, denbora nahikoa izan daitekeelako arlo motorrean hobekuntzak pairatzeko.

3. taula. Praktika motorra eta ez motorra mailaka.

Praktika Mota	1. zikloa			2. zikloa		
	1. maila	2. maila	Guztira	3. maila	4. maila	Guztira
Ez motorra	98±2,9 (%32,67)	95±2,3 (%31,67)	193 (%32,17)	84±1,6 (%28,00)	91±2,0 (%30,33)	175 (%29,16)
Motorra	202±4,2 (%67,33)	205±5,8 (%68,33)	407±5,1 (%67,83)	216±6,2 (%72,00)	209±5,2 (%69,67)	425±5,7 (%70,84)
Guztira	300±4,4	300±5,0	600±4,7	300±6,2	300±5,2	600±5,7

Calasanz-eko Eskola Kiroleko hastapeneko modeloan ikusi dugun bezala, LH-ko ziklo bakoitzean egiten den proposamena ezberdina da, horregatik ziklo bakoitzean egiten

dena atalka aztertzea garrantzitsua dela uste dugu. 3. taulan ikus daiteke denbora banaketa nolakoa izan den mailen artean eta zikloen artean.

Praktika motorrari dagokionez, ikusten da LH-ko 1. zikloko mailen artean ia ez dagoela ezberdintasunik. Bi maila hauetan egiten den planteamendua antzekoa da, hori dela eta, logikoa izan daiteke praktika motorrari eskainitako denbora berdintsua izatea. 2. zikloa aztertuz, ikus dezakegu 3. mailako ikasleek denbora pixka bat gehiago eskaintzen diola praktika motorrari 4. mailakoek baino, horren arrazoia taldearen tamaina da. Lehen ikusi dugun moduan 3. mailako taldea txikiena da, beraz, errazagoa da azalpenak ematea, bakoitza dagokion tokian kokatzea etab, horregatik denbora gehiago aprobetxatzen da. Hala ere, orokorrean ikusten da ez dagoela ezberdintasun nabaririk taldeen artean, guztietan denbora nahiko ondo aprobetxatzen dela uste dugu.

4. taula. Dentsitate indizea praktika motorraren barruan.

Praktika motorreko dentsitatea	1. zikloa			2. zikloa		
	1. maila	2. maila	Guztira	3. maila	4. maila	Guztira
Erdia	71±0,8 (%35,15)	43±0,4 (%20,98)	114±0,7 (%28,01)	10±0,0 (%4,63)	56±0,9 (%26,79)	66±1,0 (%21,63)
Osoa	131±5,3 (%64,85)	162±6,6 (%79,02)	293±6,2 (%71,99)	206±6,4 (%95,37)	153±5,8 (%73,21)	359±6,4 (%78,37)

Behin aztertuta nolakoak izan diren praktika motorraren balioak hilabete honetan zehar, oso garrantzitsua da dentsitate indizea ere nolakoa izan den aztertzea. Dentsitate indizea kalkulatzeko, lehen azaldu den irizpidea kontuan hartu da. Honetan oinarrituz 4. taulan agertzen diren balioak lortu ditugu.

1. zikloa aztertuz, ikusten da denbora askoz gehiago eskaini diogula dentsitate indize osoa duten jarduerak egiteari, 1. mailan %65 eta 2. mailan %80. 2. zikloa aztertuz, ikusten da 3. mailan ia jarduera guztiak dentsitate indize osoa dutela eta 4. mailan ia %75, beraz balio hauek ere nahiko onak kontsidera ditzakegu.

4. taula honetako daturik aipagarriena 1. mailakoa da. Gure planteamendua kontuan hartuta eta jakinda kirol hastapeneko lehenengo urtea dela umeentzat, ez da oso egokia egiten diren ariketen heren bat baino gehiago dentsitate indize partzialekoak (erdia) izatea. Horrek suposatzen dezake lehen ikusitako praktika motorraren balio egoki horiek murriztea, hau da, bere onurak murriztea. Nahiz eta praktika motorreko denbora izan, ariketa horretan ume asko ezer egin gabe daude, inplikazio motor zuzenik gabe, beraz, ez da hobekuntza emateko estimulurik agertuko.

5. taula. Praktika motorraren saio barneko banaketa.

Jarduera mota eta saio barneko kokapena	1. zikloa			2. zikloa		
	1. maila	2. maila	Guztira	3. maila	4. maila	Guztira
Ez motorra	98±2,9 (%32,67)	95±2,3 (%31,67)	193±2,6 (%16,08)	84±1,6 (%28,00)	91±2,0 (%30,33)	175±1,8 (%14,58)
Hasierako fasea	35±1,6 (%11,67)	39±1,6 (%13,00)	74±1,6 (%6,17)	29±0,4 (%9,67)	29±0,4 (%11,00)	58±0,4 (%4,83)
Garapena	49±3,1 (%16,33)	51±2,3 (%17,00)	100±2,7 (%8,33)	38±1,5 (%12,67)	41±1,9 (%14,92)	79±1,7 (%6,58)
Amaierako fasea	14±0,6 (%4,67)	5±0,7 (%1,67)	19±0,8 (%1,58)	17±0,9 (%5,67)	21±1,8 (%4,75)	38±1,4 (%3,17)
Motorra	202±4,3 (%67,33)	205±5,9 (%68,33)	407±5,1 (%33,92)	216±6,4 (%72,00)	209±5,3 (%69,33)	425±5,8 (%35,42)
Hasierako fasea	8±0,0 (%2,67)	11±3,5 (%3,67)	19±2,9 (%1,58)	25±5,5 (%8,33)	25±1,5 (%5,75)	50±3,5 (%4,17)
Garapena	194±4,4 (%64,67)	194±6,1 (%64,67)	388±5,2 (%32,33)	191±6,4 (%63,67)	184±5,3 (%63,58)	375±5,8 (%31,25)

Praktika motorraren eta ez motorraren denbora banaketa nolakoa izan den aztertu ostean, egokia izan daiteke aztertzea nolakoa izan den praktikaren banaketa saio barruan, hau da, saioetako hiru faseetan nola banatzen den praktika motorra.

1. zikloan aditasuna jarriz, ikus dezakegu saio guztietako denboraren erdia baino gehiago saioen garapenean praktika motorra egiten eman dugula, hau da, saioen garapeneko fasean praktika motorra nagusi izan da. Bestalde, nabarmendu daiteke saioen amaierako fasean ez dugula praktika motorrik egiten, tarte hau lasaitasunera bueltatzeko erabiltzen dugu, saioan egindakoaren gogoeta egiteko edota oharrak emateko, beraz, ez dago inplikazio motorrik. Hala ere, datuak aztertuz ikus daiteke saio amaierako (A) denbora ezberdina dela lau taldeen artean. Aipagarriena da 2. mailan gertatzen dena (saioaren %2 baino gutxiago amaierako fasean), hemen argi ikusten da hasierako fasea (H) beste 3 taldeetan baino luzeagoa dela (saioaren %13), eta amaierako aldiz oso motzak. Talde honen urteko dinamika ikusiz, konprobatu izan dugu askoz eraginkorragoa dela saioa hasi baino lehen, egingo dugunaren berri ematea eta oharrak momentu horretan egitea. Hori dela eta, horrela egiten hasi ginen eta saioetako amaierako fasea ia ezabatzen dugu talde honekin. Aldiz, 4. mailako taldearekin kontrakoa gertatzen da, amaierako fase luzeagoak egiten ditugu ikusi dugulako haienztzat baliagarria dela eta ongi datorkiela aktibazio maila jaisteko.

Orokorrean ikusten da denboraren banaketa saio barruan nahiko orekatua dela maila guztietan (patroi antzekoa jarraitzen duela) aurretik aipatutako kasu horietan izan ezik. Gainera, amaierako faseetan ez dugu inoiz praktika motorrik egiten, beraz, egokia izan liteke aztertzea ea saioak amaitzeko era hori egokia den edo inplikazio motorra eragin dezakeen zerbait egitea eraginkorragoa izan liteke.

4.2. Praktika motorraren ezaugarriak

Emaitzen bigarren azpiatal honetan, jardueren egiturazko aldagaiei erreferentzia egiten zaie. Saillkapen hau jardueren akzio motor domeinuen arabera, materialaren erabileraren eta memoriaren arabera egiten dira.

Nabarmendu beharra dago analisi hau egiterako orduan bakarrik denbora motorra kontuan hartu dela, praktika ez motorra alde batera utziz.

6. taula. Akzio motor domeinuen banaketa praktika motorretan.

Akzio motor domeinuak	1. zikloa			2. zikloa		
	1. maila	2. maila	Guztira	3. maila	4. maila	Guztira
C	18±0,0 (%8,91)	35±0,0 (%17,07)	53±1,0 (%13,02)	7±0,0 (%3,24)	17±2,1 (%8,13)	24±1,2 (%5,65)
CO	56±1,1 (%27,72)	44±0,5 (%21,46)	100±0,9 (%24,57)	135±6,5 (%62,55)	111±5,8 (%53,11)	246±6,4 (%41,59)
O	91±6,8 (%45,05)	75±10,0 (%36,59)	166±8,0 (%40,79)	53±3,3 (%24,54)	42±2,1 (%20,10)	95±6,5 (%31,37)
P	37±1,1 (%18,32)	51±5,4 (%24,88)	88±3,9 (%21,62)	21±3,6 (%9,72)	39±2,5 (%18,66)	60±3,4 (%17,79)

Oharrak: kolaborazioa (C), kolaborazio-oposizioa (CO), oposizioa (O) eta psikomotorrak (P).

6. taulan ikus daiteke zeintzuk izan diren 20 saio hauetan egindako ariketa desberdinen akzio motor domeinuak eta zenbat denbora eskaini diogun bakoitzari. Kolaborazioan (C) egindako ariketei dagokienez, ikus daiteke nola balore altuena 2. mailan lortu dugun. Nahiz eta 1. eta 2. mailako programazioak berdinak izan, bakoitzean egiten diren ariketa guztiak ez dute zertan guztiz berdinak izan, hori dela eta, ikusten da 2. mailan 1. mailan baino C ariketa gehiago egin ditugula. 3. eta 4. mailak aztertuz, dinamika antzekoa ikusten da, 4. mailan C gehiago egon da ikasleen artean.

Kolaborazio-oposizioarekin (CO) kontrakoa gertatzen da. Ziklo bakoitzeko lehenengo urtean bigarrenengan baino CO gehiago ematen da. Zikloak haien artean alderatuz, ikusten da 2. zikloan 1. zikloan baino CO askoz gehiago dagoela. Horren arrazoia nahiko argia da, multikiroleko planteamenduan kirol desberdinak lantzen hasten gara, horietako

asko kolaborazio-oposizio kirolak izanik, hori dela eta proposatzen ditugun jardueren erdia edo erdia baino gehiago CO akzio motor domeinukoak izatea egokia izan daiteke, azken finean barne logikari dagokionez antza gehiago izan dezaketelako lantzen ari garen kirolarekin.

Oposiziozko (O) egoerei dagokienez, ikusten da 1. eta 2. mailetan 3. eta 4. mailetan baino nabari handiagoak direla. Horren arrazoia aurrekoarekin lotuta egon daiteke. Nagusiekin multikirola egiten dugu eta LH-ko 1. ziklokoekin jarduera anitza. Saio hauek txokoen bidez antolatzen ditugu eta materialetan oinarrituak daude, ikasleak material horiek baliatuz haien artean lehiatu behar dira, erreleboen bidez, lasterketak... Ikusten den moduan akzio motor domeinu hau 1. zikloan gehien erabiltzen duguna da.

Azkenik, egoera psikomotorrei (P) dagokienez, nahiko orekatuak daude 2 zikloetan, 1. zikloan pixka bat gehiago ematen dira 2. zikloan aurretik aipatutako planteamendu kontuagatik. Hala ere, aipatzekoa izan daiteke LH 3. mailako taldearekin gertatzen dena. Ikusten den moduan, talde honen P balioak nahiko baxuak dira. Ez dago arrazoi zehatzik, baina gerta liteke taldearen ezaugarriengatik eta haien jarreragatik, beste ariketa mota batzuk egiteko joera egotea, CO besteak beste.

7. taula. Materialaren erabileraren banaketa praktika motorretan.

Materialaren erabilera	1. zikloa			2. zikloa		
	1. maila	2. maila	Guztira	3. maila	4. maila	Guztira
Alternatibo	15±0,7 (%7,43)	-	15±0,7 (%3,69)	-	-	-
Estandar	163±4,9 (%80,69)	177±6,3 (%86,34)	340±5,6 (%83,54)	199±6,3 (%92,13)	205±5,2 (%98,09)	404±5,7 (%95,06)
Materialik gabe	24±1,0 (%11,88)	28±2,9 (%13,66)	52±2,2 (%12,78)	17±7,8 (%7,87)	4±0,0 (%1,91)	21±6,1 (%4,94)

Materialaren erabilerari dagokionez, argi ikusten da hiru talde nagusitan banatzen ditugula. Alde batetik material estandarra izango litzatekeena, hau da, edonon eros daitekeen Heziketa Fisikorako eta kirolerako materiala. Beste alde batetik material gabe (MG), inolako materialik gabe aurrera eramaten ditugun ariketak, eta azken taldea, material alternatiboa erabiltzen denean. Material alternatiboarekin erreferentzia egiten diogu ikasleak egindako materialari. Gaur egun kurrikulumak adierazten duen moduan eta aditu desberdinek diotenarekin bat eginez, ohikoa da irakasgaien artean zeharkako erlazioak ezartzea. Dagoeneko irakasgaiak ez dira poltsa itxiak, haien artean zeharkako era batean elkarreragina dago, horren adibide guk egiten duguna izan daiteke. Plastikako irakasgaien Gorputz Hezkuntza erabil dezaketen materiala sor dezakete,

esaterako, arrozaz egindako pilotak, malabareak egiteko mazak, punteria lantzeko dianak, besteak beste (Ministerio de Educación y Formación Profesional, 2022b).

Material hauen erabilerarekin saiatzen gara ikasleek gelan egiten dutenaren erabilera erreala ikusaraztea. Gainera, haiek egindakoaren erabilgarritasuna ikustean, gogo handiagoarekin ekingo diote eta ikasketa prozesua esanguratsuagoa izan daiteke.

7. taulako datuetara itzuliz, ikusten da 2. zikloan ez ditugula material alternatiborik erabili. Ziklo honetan lantzen ditugunak kirolak direnez, zailagoa ikusten dugu material alternatiboen bidez hauek lantzea, hori dela eta ez ditugu erabiltzen. Aldiz, material estandarrak gehien erabiltzen ditugun materialak dira, bai 1. zikloan eta baita 2. zikloan ere. Horren arrazoia nahiko logikoa dirudi, txikiekin saioak materialetan oinarritzen ditugunez, logikoa da denbora motorraren ehuneko handiena hauek erabiltzen ematea. Nagusiekin ere patroi berdina jarraitzen da, kirol gehienetan materialen bat behar da, baloiak, pilotak, raketak... beraz, hauek erabiltzen trebatu behar dira ikasleak.

8. taula. Praktika motorra memoriaren arabera sailkatua.

Memoria	1. zikloa			2. zikloa		
	1. maila	2. maila	Guztira	3. maila	4. maila	Guztira
Bai	60±1,2 (%29,70)	79±9,6 (%38,54)	139±6,7 (%34,15)	188±6,2 (%87,04)	138±5,9 (%66,03)	326±6,0 (%76,71)
Ez	142±5,2 (%70,30)	126±3,3 (%61,46)	268±4,3 (%65,84)	28±2,9 (%12,96)	71±2,0 (%33,97)	99±2,2 (%23,29)

Azkenik, praktika motorraren egiturazko aldagaien arabera analisiarekin amaitzeko, egindako ariketa eta jolasek memoria duten edo ez aztertuko dugu. 8. taulari erreparatuz, ikus dezakegu 1. ziklo eta 2. zikloan emaitza nahiko kontrajarriak lortu ditugula. 1. zikloan askoz denbora gehiago eman dugu memoriarik gabeko ariketak egiten, batzaz beste denbora motorraren %66. Aldiz, 2. zikloan kontrakoa gertatu da, denbora motorraren %75 baino gehiago memoria duten ariketak egiten eman dugu.

Behin eta berriz aipatu dugun moduan, planteamendua ezberdina da ziklo bakoitzean. 2. zikloan kirolak lantzen ditugunez, kirolaren definizioari jarraituz, irabazle eta galtzaileak egon behar dira, hori dela eta logikoa dirudi talde hauekin memoria duten ariketen ehuneko handia izatea. Aldiz, txikiekin kontrakoa gertatzen da, motrizitatea material desberdinen bidez lantzen saiatzen gara, horregatik lehia ez da beharrezkoa ariketa guztietan, areririk gabe ere denbora dezentea ematen dugu, bai bakarka eta baita kolaborazioan ere.

5. EZTABAIDA

Lanaren helburu nagusiari helduz, hau da, kompetentzia motorra garapen integrala lortzeko bide garrantzitsuenetako bat bezala kontsideratuz, ikusi ahal izan dugu Eskola Kiroleko hastapeneko saioak akzio motor domeinu desberdinekin lantzea egokia izan daitekeela kompetentzia motor desberdinak bereganatzeko. Larrazek (2008b) proposatutako sei domeinu motorretatik aste hauetan lehenengo lauak landu ditugula ikusi ahal izan dugu. Talde guztietan ikasle guztiek aukera izan dute bakarkako ariketa eta erronkak gauzatzeko, kolaborazioan lan egiteko, bata bestearen aurka lehiatzeko eta talde bat beste baten aurka aritzeko. Azkenengo biak aldiz ezin izan ditugu landu. Ingurunearen ziurgabetasuna barne hartzen duen akzio motor domeinua ez dugu landu saio guztiak gimnasioan bertan egin ditugulako, ingurune ziur eta estandarra, beraz, inguratzen gaituen munduak zentzu horretan ez digu ziurgabetasunik eragiten. Azkenengo akzio motor domeinuari dagokionez, artistikoa alegia, hau ere ez dugu landu, gure Eskola Kiroleko zeharkako planteamendu honetan ez baitugu barne hartzen.

Nahiz eta ikusi era orokorrean akzio motor domeinu desberdinak lantzen ditugula, zikloak eta mailak haien artean alderatzea egokia izan daitekeela uste dugu, hauen arteko desorekak eta desberdintasunak antzemateko.

Nagusiekin multikirolaren bidez kirolak lantzen ditugunez, aukera gehiago daude kolaborazio oposizio egoera horiek emateko. Lantzen ditugun kirol asko talde kirolak dira, hori dela eta CO-ren balioa hain altua da bigarren zikloan. Horretaz aparte, umeak nagusiagoak izan ahala erraztasun gehiago izan ditzakete haien artean elkarlanean aritzeko, horrek aukera gehiago ematen ditu CO jarduerak proposatzeko (Altozano, 2015).

Oposizioko (O) jarduerari dagokionez, kontrakoa gertatzen da. Lehen zikloan bigarren zikloan baino gehiago ematen da. Egoera hauetan ikasleak bata bestearen aurka lehiatzen dira, ez dituzte kideak kontuan hartu behar. Jarduera mota hauek haien lana erraztu dezakete, bakarrik arerioa kontuan hartu behar izatea jaso beharreko estimulu kantitatea murriztu dezake, ariketa sinpleagoa bihurtuz.

Jarduera psikomotorrak (P) aztertuz, ikusten da 3. mailan hauen kopurua oso eskasa dela, beste hiru kurtsoetan balio horiek nahiko parekoak izanik. Ez dago arrazoi argirik, baina talde dinamika eta lan egiteko era honen arrazoiak izan daitezke.

Materialaren erabilerari dagokionez, ikus dezakegu ehuneko oso handi batean material estandarra erabiltzen dugula. Material hau oso eskuragarria da, eskola guztietan oinarritzko materiala dago eta lana erraztu ahal digu. Erosotasunagatik oraindik ere material estandarraren erabilera nagusi da gure kasuan. Hezkuntza kurrikulumari begira eta honek planteatzen duen zeharkakotasun printzipioa jarraituz, etorkizunean aldatzen joan beharreko lan egiteko era izan beharko litzateke. Heziketa Fisikoa zeharkakotasun

hori lantzeko baliabide izugarri handia izan daiteke, beraz, gehiago aprobetxatu beharreko bide bat izan beharko litzateke.

Balio hauek mailetan gora egin ahala oraindik ere nabariagoak dira, LH-ko 4. mailan denboraren ia %100-a material estandarrekin lan egitera ailegatuz.

Jardueren memoriari dagokionez, ikusten da ildo logiko bat jarraitu dezaketela. Txikiekin egiten ditugun jarduera askok ez dute memoriarik, eta nagusitzen joan ahal memoria sartzen dugu. Hala ere, akzio motor domeinuen taula ere kontuan hartzen badugu, ikusten da arerioen presentzia nahiko handia dela bi zikloetan, bai O egoeretan eta baita CO egoeretan ere. Beraz, hemen aztertu beharreko arazo baten aurrean gaude. Ez dirudi logikoa pertsona bat beste baten aurka egin beharreko ariketetan irabazlerik ez egotea (kasuan kasu), aurkakotasun hori egotea norbait irabazle ateratzea suposatuz beharko luke, beraz, proposatzen diren jardueren arauak aztertu beharko genituzke ideia kontrajarri hauetan ez erortzeko.

Aztertutako beste bloke garrantzitsua denboraren banaketaren arloa izan da. Ikus daitezkeen moduan, denbora totalaren bi heren baino gehiago praktika motorra egiten ematen dute, oso datu ona kontsideratu dezakeguna. Izan ere, hainbeste denbora akzio motor domeinu desberdinetako ariketak egiten egoteari esker, aukera asko ematen dizkiegu ikasleen haien konpetentzia motorrak hobetzeko eta ondorioz garapen motorra pairatzeko. Datu hau zikloka aztertuz, ikusten dugu bigarren zikloan datu hori pixka bat altuagoa dela, hau da, denbora motor gehiago eskaini diegula bost aste hauetan zehar. Honek arrazoi desberdinak izan ditzake, hala ere, seguruenik taldeen tamaina eta ikasleen adina erabakigarriak izan daitezke balio hauen lorpenean.

Praktika motorra ematen denean jardueretan dagoen dentsitate indizea aztertuz, ikusten dugu guztietan %60-tik gora dagoela, hau da, jardueren erdiak baino gehiago aldi berean ikasle guztiei parte hartzeko aukera ematen diela. Kurtsoak banan-banan aztertuz, ikus daiteke 1. mailan balio baxuenak lortu ditugula. Ez dirudi oso logikoa ikasle askorentzat kirolarekiko lehenengo hurbilpena den saioetan denbora dezente ezer egin gabe egotea, ariketak ez diolako zerbait egiteko aukerarik ematen, beraz, hau zalantzarik gabe hobetu beharreko alderdi bat da.

Azkenik, saio barneko denboraren banaketari dagokionez, ikus daiteke saio amaieretan ez dugula praktika motorrik egiten, zuzenean amaitu egiten dugu egiten geunden praktika motorrekin edo praktika ez motorreko ariketa baten bidez amaitutzat ematen ditugu saioak.

Honen harira, lan osoan zehar esaten ibili gara praktika motorrak garapen motorra lantzeko bidea dela, baina ez dugu aztertu praktika ez motorraren garrantzia. Praktika motor asko, kontrolik gabe eta hausnarketarik gabe, konpetentzia motorrean hobekuntza dakar? Nire ustez ez, egiten duguna ez badugu kontrolatzen eta hausnarketarako eta

pentsatzeko uneak uzten ez baditugu, hau da, umeei egiten ari garenaren inguruan kontziente izaten uzten ez badiegu, zaila izango da hobekuntza lortzea. Lekuan geldirik, bakarka, binaka, talde txikietan edota talde handian egindakoaren berri ematen ez badugu, ez badute sentitu dutena azaltzen etab, zailagoa izango da egin dutenaren inguruko kontzientzia hartzea. Hau egiteko komenigarria izan daiteke saio amaieretan egindakoaren inguruan hitz egitea, haiek komentatzea nola ikusi diren, zer gustatu zaien, eta zer ez, horrek haiengan onurak sortzeaz gain, guretzat oso feedback garrantzitsua izango da.

Beraz, azpialal honekin amaitzeko, datuak jaso, aztertu eta hauen inguruan hausnartu ostean, esan dezakegu Eskola Kirolean ere akzio motor domeinuen arabera lan egin daitekeela Heziketa Fisikoaren planteamendu metodologikoa jarraituz. Calasanzeko hastapeneko Eskola Kiroleko saioetan lortutako datuei erreparatuz, ikusten da akzio motor domeinu gehienak lantzen direla hilabete bateko programazioan. Gainera, Heziketa Fisikoko irakasleekin dugun etengabeko kontaktuari esker, batzuk egiten duguna beste batzuk egiten dugunarekin alderatzen dugu eta elkarri laguntzen diogu, hori izan daiteke programa honen indar gune nagusienetako bat.

6. ONDORIOAK

Ikerketa lan hau amaitu ostean eta lortutako datuei esker, ondorio interesgarriak lortu ditugu.

Lanaren izenburuan agertzen den galderari erantzuna aurkitu ahal izan diogu. Arloan adituak diren autoreek diotena oinarri moduan hartuta eta guk egiten duguna aztertu ostean, ikusi ahal izan dugu badagoela lotura pedagogikoa Heziketa Fisikoaren eta Eskola Kirolaren artean. Hau da, Heziketa Fisikoan egiten den kompetentzia motorretan oinarritutako planteamendua egokia eta erabilgarria izan daiteke Eskola Kirolean martxan jartzeko. Izan ere, ikusi ahal izan dugun moduan, hastapeneko Eskola Kirola eta Heziketa Fisikoa lotura estua duten bi arlo dira, hori dela, eta baten planteamendua bestean oinarritzea kompetentzia motorretan hobekuntza izatea dakar eta horrekin batera umeen garapen integrala bermatuko dugu.

Materialaren erabilerari dagokionez, ikusi dugu material asko erabiltzen dugula, baina gehienetan material hori estandarra da. Oso ondo dago material desberdinak erabiltzea, materialek aukera anitzak eskaintzen dizkietelako ikasleei eta horrek haien sormena garatu eta interesa piztu dezakeelako. Hala ere, lehen aipatutako zeharkakotasuna lantzeko aukera aproposa galtzen ari gara. Materialen birziklapena, berrerabilerara eta lanketa beste irakasgai batzuen ikerketa gaia izan daiteke, eta bertan landutakoa Heziketa Fisiko zein Eskola Kirolean aplikagarria izan liteke. Era berean, azkenengo akzio motor domeinua ez lantzea, artistikoa alegia, zeharkakotasun hori lantzeko aukera aproposa izan liteke eta ez gabiltza aprobetxatzen.

Praktika motorraren beste ezaugarri bati helduz, ikusi dugu 1. mailan aurkakotasun egoera asko proposatzen ditugula, baina era berean ez dugula memoriarik ezartzen. Ume hauetan hainbeste denbora norgehiagoka egoera hauetan ematea eta aldi berean memoriarik gabe izatea zentzu gehiegirik ez duela dirudi. Antzekoa gertatzen da dentsitate indizearekin, 1. mailan dentsitate indizea ez da altuegia, zenbait ume denbora nahikoan zehar inplikazio motorrik gabe egoten dira, beraz, hori ere hobetzeko beste aspektu bat izango litzateke.

Azkenik, lanaren hasierari erreferentzia eginez, uste dugu Eskola Kirola Heziketa Fisikoaren gehigarria izan daitekeela umeen jarduera fisiko eta kirol mailak handitzeko. Hau lortzeko, ezinbestekoa da hastapeneko Eskola Kirol proposamen erakargarri, bidezko, parte hartzaile eta dibertigarria eskaintzea. Ikasleak egiten dutenagatik erakarriak sentiaraztea eta praktikatzen jarraitu nahi izatea lortu behar dugu, eta hau ere Eskola Kirola akzio motor domeinuen bidez landuz lor dezakegu.

7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lan honen hobekuntza proposamenei dagokienez, nahiz eta era teorikoan ikusi eta frogatu egiten den planteamendua zeharkakoa dela urte osoan zehar, hau da, akzio motor domeinu desberdinak lantzen direla hilabete desberdinetan, egokia izango litzateke errealitatean egiten denaren datu bilketa eta datuen analisisa egitea. Honi esker, ikasturte oso batean egindakoaren berri izango genuke, eta hurrengo ikasturterako moldaketak egiteko irizpide garrantzitsuak jaso genitzake.

Bestalde, egindako analisisian lortutako emaitzei dagokienez, etorkizunari begira programak bi arlotan hobekuntzak jasan ditzake. Lehenik eta behin, ikusi dugu material alternatiboaren erabilera oso metodo egokia izan daitekeela zeharkako konpetentziak lantzeko, eta lortutako emaitzen arabera hau oso gutxi erabiltzen dugu. Beraz, etorkizunari begira alderdi honen bultzada proposatu beharko genuke. Nahiz eta gure esparrua ez kurrikularra izan, planteamendua kurrikulumak dioenaren eskutik doa, beraz, aproposa izan liteke zeharkakotasun hori hemen ere sartzen joatea.

Bestalde, memoriaren eta akzio motor domeinuen arteko erlazio hori hobeto zehaztu beharko genuke. Beharbada umeak hain gazteak izanda ez dira konturatzen zergatik bata bestearen kontra ari diren eta amaieran ez dagoen irabazlerik. Memoria sartzea ariketa batzuetan egokia izan liteke ikasle batzuentzat motibagarria delako (beste batzuentzat kontrakoa), beti ere kontzientzia minimo batekin egiten bada.

8. BIBLIOGRAFIA

- Álava, D. F. de. (2022). *Eskola kirola*. <https://web.araba.eus/eu/eskola-kirola>
- Altozano, C. (2015). *Psicología del desarrollo. Desarrollo psicomotor* (or. 12). [https://www.magister.es/grado/materiales5/Grado_Semi_Presencial/1ª_Sesión/Licenciados, Graduados y Diplomados no maestros/Primaria para diplomados no maestros, Grupo 4/Psicología del desarrollo/TEMA 1 DESARROLLO PSICOMOTOR.pdf](https://www.magister.es/grado/materiales5/Grado_Semi_Presencial/1ª_Sesión/Licenciados_Graduados_y_Diplomados_no_maestros/Primaria_para_diplomados_no_maestros_Grupo_4/Psicología_del_desarrollo/TEMA_1_DESARROLLO_PSICOMOTOR.pdf)
- Baker, J., eta Cobley, S. (2009). What do we know about early sport specialization? Not much! *High Ability Studies*, 20(1), 77–89. <https://doi.org/10.1080/13598130304091>
- Brandon, X. (2020). Directrices de la OMS sobre actividad física y hábitos sedentarios: de un vistazo [WHO guidelines on physical activity and sedentary behaviour: at a glance]. *Journal of Chemical Information and Modeling*, 1(9), 1–17. <http://www.sela.org/media/3219723/covid-19-resumen-de-las-principales-medidas-estados-miembros-sela.pdf%0Ahttp://apps.who.int/bookorders%0Ahttps://polemos.pe/el-hacinamiento-en-las-carceles-peruanas-en-el-marco-de-la-pandemia-del-covid-19/%0Ahttps://www.m>
- Devís, J. (2018). Los discursos sobre las funciones de la Educación Física escolar: Continuidades, discontinuidades y retos. *Revista Española de Educación física y deportes*, 423, 121–131.
- Etxeazarra, I. (per review). *Caracterización de un programa de intervención para educación Física y deporte escolar: ¿pueden ser ámbitos complementarios?. Apunts, revista de Educación Física*.
- Eusko Jaurlaritz. (2008). 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, *Eskolako Kirolari buruzkoa*. 18669–18685.
- Faigenbaum, A. D., Farrell, A., Fabiano, M., Radler, T., Naclerio, F., Ratamess, N. A., Kang, J., eta Myer, G. D. (2011). Effects of integrative neuromuscular training on fitness performance in children. *Pediatric Exercise Science*, 23(4), 573–584. <https://doi.org/10.1123/pes.23.4.573>
- Fonseca, T., eta Benacázar, G. E. (2016). *Ejercicios de motricidad, en el desarrollo personal de los niños de primer grado «C» del centro de educación inicial Vigotsky, en la ciudad de Riobamba, provincia de Chimborazo*.
- Gambau, V. (2015). Las problemáticas actuales de la educación física y el deporte escolar en España. *Revista Española de Educación Física y Deportes*, 411, 53–69. <http://www.reefd.es/index.php/reefd/article/view/114/111>
- Iivonen, S., eta Sääkslahti, A. K. (2014). Preschool children's fundamental motor skills: A review of significant determinants. In *Early Child Development and Care* (Libk.

- 184, Zenbakia 7, (or. 1107–1126). Taylor and Francis Ltd.
<https://doi.org/10.1080/03004430.2013.837897>
- Imbernón, S. (2020). *Evaluación del Perfil Psicomotor con Alumnos de 2º ciclo de Educación Infantil de 3 a 5 años*.
[https://digitum.um.es/digitum/bitstream/10201/93170/1/Susana Imbernón Giménez Tesis Doctoral.pdf](https://digitum.um.es/digitum/bitstream/10201/93170/1/Susana%20Imbern%C3%B3n%20Gim%C3%A9nez%20Tesis%20Doctoral.pdf)
- Jiménez, F. (2010). Los modelos de enseñanza en los juegos deportivos. In *Iniciación deportiva escolar* (or. 1–19).
- Larraz, A. (2004). *Los dominios de acción motriz como base de los diseños curriculares en educación física: el caso de la comunidad autónoma de Aragón en educación primaria* (or. 203–226). Edicions de la Universitat de Lleida.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1024562>
- Larraz, A. (2008a). *Las Situaciones Motrices*. 5–10.
- Larraz, A. (2008b). Valores y dominios de acción motriz en la programación de educación física para la educación primaria . In *Seminario Internacional de Praxiología Motriz*.
- Larraz, A. (2013). Educación física y conducta motriz ¿De qué Educación Física hablamos? *Educación física escolar. Es*, 1–6.
- López Pastor, V. M. (2017). ¿Qué significa programar por «Dominios de acción motriz» y qué ventajas tiene para el profesorado de educación física? *EmásF, Revista Digital de Educación Física*, 44(December 2016), 5–10.
<http://emasf.webcindario.com>
- Martínez-Heredia, N., Santaella-Rodríguez, E., eta Rodríguez-García, A. M. (2020). Learning environments in Physical Education and motivation in early childhood. *Retos*, 83, 761–767.
- Martínez de Santos, R. (2007). *La praxeología motriz aplicada al fútbol* (U. del P. V. (UPV-EHU) (arg.)).
- Ministerio de Educación y Formación Profesional. (2022a). *Educación Física*.
<https://educagob.educacionyfp.gob.es/curriculo/curriculo-lomloe/menu-curriculos-basicos/ed-primaria/areas/educacion-fisica.html>
- Ministerio de Educación y Formación Profesional. (2022b). Real Decreto 157/2022, de 1 de marzo. In *1 De Marzo* (or. 1–190).
<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-3296>
- Monsalvo, J., Pinto, Y., González, T., Padilla, A., eta Noguera, L. M. (2018). Características de la motricidad fina en niños en el jardín de infancia católico de la ciudad de Barranquilla. *Rev. salud mov.*, 10(1), 69–81. [view/1646](https://doi.org/10.17951/rs.2018.10.1.69-81)
- Parlebas, P. (2008). *Juegos, deporte y sociedad. Léxico de praxeología motriz*.

Paidotribo.

- Piaget, J. (1985). *La construcción de lo real en el niño*. Critica.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=230957>
- Ramirez, W., Vinaccia, S., eta Suarez, G. R. (2007). El impacto de la actividad física y el deporte sobre la salud, la cognición, la socialización y el rendimiento académico: una revisión teórica. *Revista de Estudios Sociales*, 5(18), 67–75.
<https://doi.org/10.1115/98-GT-583>
- Reverter Masià, J., Plaza Montero, D., Jové Deltell, M. del C., eta Hernández González, V. (2015). Actividad físico-deportiva extraescolar en alumnos de primaria: el caso de Torreveja (Alicante) (Extracurricular physical and sports activities in elementary students: the case of Torreveja (Alicante)). *Retos*, 25, 48–52.
<https://doi.org/10.47197/retos.v0i25.34476>
- Rodríguez-Vázquez, H. I., Torres-Palchisaca, Z. G., Ávila-Mediavilla, C. M., eta Jarrín-Navas, S. A. (2020). Incidencia de la educación física en el desarrollo de la motricidad fina y gruesa de los niños. *Polo del Conocimiento: Revista científico-profesional*, 5(11), 482–495. <https://doi.org/10.23857/pc.v5i11.1938>
- Sánchez Jiménez, M. Á., Galiano Coronil, A., eta Gutiérrez Montoya, G. A. (2018). Creación, desarrollo y análisis de un equipo docente para la mejora de coordinación del profesorado en el ámbito universitario. *Diálogos*, 25–37.
<https://doi.org/10.5377/dialogos.v21i1.14708>
- Sanz, A. (2015). *Re-imaginando - Multi-deporte vs. Especialización - Blogs Expansión.com*. <https://www.expansion.com/blogs/re-imaginando/2015/01/31/multi-deporte-vs-especializacion.html>
- Tenera, L. A., Jiménez, P. A., Kelly Margarita Ricaurte, eta Paredes, N. E. (2011). Características del desarrollo adaptativo en niños de 3 a 7 años de la ciudad de Barranquilla. *Psicología*, 5(2), 95–104. <https://doi.org/10.21500/19002386.1136>
- Torrents, C., Araújo, D., Gordillo, À., eta Vivés, M. (2011). El diseño de contextos de enseñanza-aprendizaje para el desarrollo de la motricidad. *Tándem: Didáctica de la Educación Física*, 36, 27–35.
<http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3641820>
- UNIR. (2022). *Psicomotricidad Aucouturier: innovación en el desarrollo educativo*. <https://www.unir.net/educacion/revista/psicomotricidad-aucouturier/>
- Uribe, I. D. (1997). *Iniciación deportiva y praxiología motriz*.
- Usabiaga, O., Yanci, J., Los Arcos, A., Martínez, N., Rodríguez, J., eta González, A. (2021). *TXOSTEN TEKNIKOA Kirol hastapena: Errendimendu, osasun, kirol ohitura eta garapen integralerako jarraibideak*. UPV/EHU Universidad del País Vasco. Euskal Herriko Unibertsitatea.

